# Goierritarra

250. zenbakia 2003-11-5

San Martin azoka Zegaman

San Martin jaiak Ataunen eta Araman

'Linue Zegama'

'Ataungo kanta zaharrak'




JOXE TELLERIA, S. M. Aseguruak Korreduria

ZURE BIZITZA ETA ONDASUNAK
ONDO ASEGURATU NAHI BADITUZU, BADAKIZU NORA JO

☎ 943 88 26 43 - 943 88 71 55 - Faxa: 943 88 71 55 Erauskin Plaza, 2 BEASAIN

BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BEROGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK

vegasa

BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK




ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com




BERMEA 3 URTE 100.000 Km

EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierrirako: ANZIZAR

LAND ROVER
THE LAND ROVER EXPERIENCE

ANZIZAR Beasain-Zumarraga errepidea Telefonoa: 943 88 17 00

**Goierritarra**
**HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea
**Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)**
**124 posta-kutxa ORDIZIA**
**Tfnoa: 943 88 96 12**
**Faxa: 943 88 27 19**
**Posta elektronikoa:**
**goierritarra@topagunea.com**

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre
**Maketazioa:** Mikel Albisu
**Publizitatea:** Argider Mujika

**Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Aitziber Murua, Maite Lasa, Iñaki Ugalde, Andoni Sarriegi eta Landarlan.

**Fotokonposizio eta maketazioa:** **Goierritarra**
**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
**Tirada:** 7.000 ale
**SSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76

***GOIERRITARRAk ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.***

*Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta* ***GOIERRIKO UDALEK*** *diruz lagundutako aldizkaria*

*Azaroaren 8an*

# Odolki lehiaketa Beasainen



Azaroa iristearekin batera, Beasainen, odolkiaren lehiaketa izaten da. Aurten, azaroaren 8an izango da, Loinazko San Martin plazan. Eguerdiko 12etan hasiko dira odolkiak epaitzen. 40 harakinen bueltan aurkeztuko dira aurten ere lehiaketara, Odolkiaren Errege edo Erregin izendapen desiatua irabazteko helburuarekin.

Beasaingo odolki txapelketa hau gehienetan irabazi duena, Beasaingo Olano harategikoak dira. Lau aldiz irabazi dute, azkena iaz. Bi aldiz irabazi dutenen artean, beste lau goierritar ditugu: Ormaiztegiko Deba eta Campos, Ordiziako Barandiaran eta Beasaingo Irizar.

Epaimahaiaren zuzendaria, Karlos Argiñano sukaldari famatua izango da. Bere ondoan izango ditu Goierriko sukaldariak, Martin Berasategi sukaldaria, Jose Juan Castillo sukaldaria, Pello Garcia Amiano gastronomoa eta Odolkiaren kofradiako kideak. Mungiatik ere etorriko dira, beasaindarrak ere Mungiako lehiaketara joaten baitira.

## Azoka

Odolki lehiaketaren aitzakian, bertako produktuen azoka ere izango da Loinazko San Martin plazan. Goizeko 10etan hasiko da. Beasaingo martintxoak, piperrak, ogia, gazta, euskal pastela... denetik egongo da salgai. Aurten, hori bai, babarrun eta sagar gutxi.

Horrelako egun batean odolkirik ezin falta eta, odolkiak erosi eta dastatzeko aukera izango da. Odolki pintxoak euro batean salduko dira. Laguntzeko ardoa nahi duenak, beste euro bat ordaindu beharko du.

## Goierriko odolkia Italian

Italian, Torino ondoko herri batean izan ziren irailaren bukaeran, Jose Manuel Olano eta Jesus Mari Deba odolkigileak, Martin Urkiola Odolkiaren kofradiko kidea eta Roberto Ruiz sukaldaria, Goierriko odolkia ezagutzera emateko. Martin Urkiolak adierazi digunez, *"han ere egiten da odolkia, baina pobreen produktutzat hartzen da. Bultzatu nahian dabiltza eta gure lana ezagutu nahi izan zuten"*. Italiarrek odolkia bi eratara jaten omen dute: egin berritan egosita, eta behin ondutakoan, hestebete bezala. Odolkiaren kofradikoek italiarrak gonbidatu zituzten Beasaina, odolkiaren lehiaketara, baina ezin izango dira etorri, beste odolki azokaren bat dutelako bertan.

**Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria eta Espainia: | urtean 12 euro |
| Ipar Euskal Herria eta Europa: | urtean 24 euro |
| Europaz kanpo: | urtean 36 euro |

## Mariaje Arriaga presoaren etorkizuna airean

Frantzian preso dagoen Mariaje Arriaga ordiziarraren etorkizunaren inguruan zalantzak daude oraindik. Frantzian zuen zigorra urrian betetzen zuen eta Espainiako poliziaren esku utzi eta torturatua izateko beldurrez gose greban hasi zen irailaren bukaeran. Frantziako Espultsio Batzordeak urriaren 21ean erabaki behar zuen Mariaje Arriagarekin zer egin, baina, erabakia atzeratu egin zuen gutxienez hilabetez. Egoera hau gehienez abendura arte luzatu daiteke. Azaroaren 21eko Espultsio batzordean erabakitzen ez bada, abenduaren 19koan egingo da.

Espainiako justiziak ez du Mariaje Arriagaren aurkako salaketarik.

## *Goierriko Elkarri:* "Ehun mila lagunek elkarrizketarako mahai alderdianitza deitzea eskatuko dugu"

Elkarri, elkarrizketa eta akordioaren aldeko gizarte mugimenduak, Bake Konferentzia berria bultzatuko du 2004ko martxoan. Urriaren 4an, Euskalduna Jauregian burutu zuen ekitaldi batekin, Espainiako Hauteskunde Orokorrak bitarte iraungo duen gizarte eta prestakuntza faseari ekin zion Elkarrik.

Goierriko Elkarrik emandako datuen arabera, fase hori garatzeko, Elkarrik Eskaera Eskubidea erabiltzea erabaki du, gizarteak parte hartzeko funtsezko eskubide bat Konstituzioaren 29. artikuluak aitortzen duena. *"Hau erabiliaz herritarrok eta gizarte erakundeok instituzioetan proposamenak aurkez ditzakegu eta hemen tramitatu eta erantzun egin behar dituzte"*, zehaztu du Elkarrik.

### 100.000 sinadura

Datozen sei hilabeteetan, manifestu bati atxikituz 100.000 sinadura biltzen saiatuko da Elkarri, *"legezko bide hau erabiltzeko eta Eusko Legebiltzarrera eta Nafarroako Parlamentura elkarrizketa foro alderdianitz baterako proposamena aurkezteko"*. Proposamena aurkeztu aurretik, Elkarrik alderdi politikoen artean ahalik eta adostasunik zabalena bilatuko du bere edukiaren inguruan. Horretaz gain, bi manifestazio deituko ditu Elkarrik: bat abenduaren 20an Bilbon eta bigarrena urtarrilaren 24an Iruñan.

### Goierrin 2.000 sinadura

Goierriko 2.000 lagunen sinadura eta bakoitzeko 5 euroren bitarteko laguntza behar dira Elkarriren ekimen hau aurrera eramateko. Horretarako Goierriko (Ataun, Beasain, Ordizia eta Zaldibia) Elkarriko tailerrak honako ekimenak antolatu dituzte azaroan zehar.

- **Azaroaren 8a,** larunbata, goizeko 11,30etatik aurrera, sinaduren biltzea eta informazio banaketa Beasaingo San Martin plazan (Udaletxeko plazan).
- **Azaroaren 12a,** asteazkena, 19:30ean hitzaldia Ordiziako Barrena Kultur Etxean, Elkarriko Tailer Nazionaleko kide baten eskutik, Bake Konferentzia berriaren gizarte eta prestakuntza fasea aurkezteko.
- **Azaroaren 15 eta 16a,** larunbata eta igandea, goizeko 11,30etatik aurrera, sinaduren biltzea eta informazio banaketa Ordiziako plaza Nagusian.
- **Azaroaren 17, 19 eta 21a** (astelehena, asteazkena eta ostirala) Elkarriren erakusketa eta sinadura biltzea Ordiziako Barrena Kultur Etxeko sarreran.

JAUREGI
TOLDOAK s/l
Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

KAXO
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

EGUZKI INPRIMATEGIA
Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 943 88 94 82
BEASAIN

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa
Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

GERTU aholkularitza
txekin
ENPRESA BERRIAK SORTZEKO DOHAINEKO AHOLKULARITZA ETA SUBENTZIOAK
BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com
Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

# Sukaldeko olioaren bilketa, Sasieta Mankomunitatearen eskutik

Bi urte badira, Sasieta Mankomunitatea, Goierriko herri handienetan sukaldeko olioaren bilketa egiten hasi zela. Denbora horretan, beste herrietako biztanleen eskaera asko jaso ditu Sasietak. Hau dela eta, sukaldeko olioa biltzeko zerbitzua zabaltzea erabaki dute.

Hilean behin egingo da bilketa. Herri bakoitzak hilabeteko egun bat izango du. Egutegia ondoko koadroan duzue.

Aurrez zehaztutako egun horretan, eguerdi aldera, furgoneta bat pasatuko da megafoniaz oharra zabalduz eta olioa jasoz. Bukatzeko, herriko plazan egongo da denbora batez, norbaitek bertara eraman nahi izanez gero. Dena den, bilketa egunaren berri emanez megafonia pasatuko da herrian. GOIERRITARRA aldizkarian eta Segura irratian ere zehaztuko dira egunak.

**Hileko azkeneko ostegunetan:**
Zerainen (12:10-12:30).
Seguran (12:35 13:05).
Mutiloan (13:10-13:30)
Idiazabelen (13:40-14:10)

**Hileko lehenengo astelehenetan:**
Ataun San Martinen, (13:10-13:40)
Ataun San Gregorion (13:45-14:05).

**Hileko lehenengo asteazkenetan:**
Zaldibian (13:10-13:40).
Itsasondon (13:50-14:15).

**Hileko lehenengo asteazkenetan:**
Ordizian (azokan).

**Hileko lehenengo asteartetan:**
Beasainen (azokan).

**Hileko lehenengo astelehenetan:**
Lazkaon (azokan).

Bilketa honetan, sukaldean erabilitako olioa bakarrik bilduko da. Eta inola ere ez, autoko olio zaharrik.

Olioa beirazko, plastikozko, metalezko edo tetra-brik erako edozein ontzitan gorde daiteke.

## Kilometroetako standeko zozketa

Urriaren 5ean Lazkaon ospatu zen Kilometroak 2003 jaian, Sasieta Mankomunitateak zuen standean egin zen zozketako saritua, Itsasondoko Manuel Agirre Unanue izan zen. Nekazalturismo etxe batean, asteburuko egonaldia irabazi du itsasondoarrak.







# Estanda Fundizioak eta Juan Jose Arostegi sarituak

Eusko Jaurlaritzak enpresei eta enpresariei ematen dien sarietan, Goierriko bi izen izan dira protagonista. Batetik, Beasaingo Estanda Fundizioak-ek, Empresa Berritzaileen saria jaso du. 1990ko krisia gainditu, burua altxatu eta industrigintzan aurrera egiteagatik. Abiadura handiko trenentzako piezak egiten ditu Estandak. Bestetik, Juan Jose Arostegi ordiziar enpresaria ere saritu du Jaurlaritzak. Urrezko makila jaso zuen Olaberriko Arcelor Largoseko buruak, *"bizitza oso bateko lan finagatik"*.

# Itsasondoko eta Legorretako tunelak abendura arte itxita

Donostiako norabidean Itsasondoko eta Legorretako tunelan egiten ari diren lanak abendura arte luzatuko dira. Aurrez iragarritako epea baino hilabete gehiagoz.

# CAFek 200 milioi euroko kontratua lortu du

Renferen ibilbide motzeko 40 tren egingo ditu Beasaingo CAF enpresak. 200 milioi euroko kontratua sinatu dute Renfek eta CAFek. 2005. urterako lehenengo trenak amaituta eduki beharko ditu CAFek; azkenak, 2007rako. 40 trenetatik 31, bost bagoiez osatutakoak izango dira eta gainerakoak, hirukoak.

# Emakume ekintzaileentzat ikastaroa Goiekin

Goiekik, urtero bezala, emakumeei zuzenduriko enpresa sortze eta kudeaketa ikastaroa antolatu du. Enpresa sortzeko eman beharreko urratsei buruz informazioa emango da bertan. Bideragarritasun plana, enpresen kudeaketa, enpresa sortzeko ideia, ekonomia-finantzako arloa, zuzenbide eta langintza arloa, lan arriskuen prebentzioa, ingurugiroa eta finantza erakundeekin negoziaketa gaiak landuko dira ikastaroan, azaroaren 10etik abenduaren 15era birtartean, goizeko 9etatik ordu batera. Ikastaroa subentzionaturik dago. Izen ematea Goiekin (943161831), azaroak 7 bitartean.

*Goimenek antolatuta*

## IV. Ideia eta proiektu berritzaileen sariketa



Goierriko Landa Garapen Elkarteak, Goimenek, IV. Ideia eta proiektu berritzaileen sariketako oinarriak kaleratu ditu. Landa eremuetako identitate eta bizi kalitatearen alde lan egitea helburu du Goimenek eta sariketa honekin, nekazaritza arloarekin zein landa garapenarekin zer ikusirik duten edozein ekimen susperta eta garatzea litzateke.

### Oinarriak

Goierrin garatu ahal daitezkeen ideia eta proiektu berritzaileak sarituko ditu Goimenek. Eskualdean gauzatu gabekoa izan beharko du.

Sariketan parte hartu nahi duenak, txosten bat aurkeztu beharko du, ideiaren edo proiektuaren helburua, justifikazioa, proiektuaren garapen memoria eta ahal dela aurrekontua zehaztuz.

### Gai posibleak

Ohiko produkzio joeretan oinarrituta, aldaketa eredugarriak edota produktuari balio erantsi handiago bat ematea lortuko luketen ekimenak. Goierriko eskualdean ohikoak diren produkziotatik kanpo nekazaritza arloan burutu daitezkeen ekimenak. Eta nekazaritza jardueretatik kanpo, beste jarduera osagarriak.

### Sariak

Bi sari banatuko dira. Lehenengoarentzat, 1.000 euro eta bigarrenarentzat 500 euro. Gainera, proiektua lantzeko 3.000 euroko beka eta jarraipen laguntza eskainiko du Goimenek. Inbertsiorako ere dirulaguntza izango da, proiektua eskualdean gauzatzekotan.

### Epeak

Txostenak, Goimen Elkartera eraman edo bidali beharko dira azaroak 17 baino lehenago, partaidearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziz.

Xehetasun gehiagorako, Goimenera jo besterik ez dago. Ordiziako Santa Maria kaleko 1. solairuan duen bulegora. Bestelakoan, harremanetarako telefono zenbakia: 943161244. Faxa: 943161463. Posta elektronikoa: goimen@euskalnet.net.

## Goierritarren gaztak irabazle Gernikako azokan

Urriko azkenengo asteleheneko Gernikako azokan, gazta lehiaketan, bi goierritarren gaztak izan ziren lehenengo bi sariak eskuratu zituztenak. Lehenengo saria, Zeraingo Maria Angeles Iñurrategik jaso zuen eta bigarrena, Ilarduian bizi den Jose Mari Jauregi lazkaotarrak.

## Patxi Ezkiagak Irun Hiria saria irabazi du

'Munduaren amaierako kalea' eleberriarekin irabazi du Patxi Ezkiaga legorretarrak, Irun Hiriaren saria, euskarazko eleberrien atalean. Erlijio gerren testuinguruan murgildutako eleberria da.

## Nikolas Lekuonaren obra Gasteizko Artiumen

Ordiziako Nikolas Lekuona pintorearen erakusketa antologia bildu Gasteizko Artium museoak. 23 urterekin hil zen Lekuona (1913-1937), baina pintura munduan bere garaiko onenetariko bezala hartua izan da.



## Ehunate taldea

Goierriko artistita plastikoen taldea da Ehunate. Bere lana ezagutzera emateko, 'Pertsonakolore=tokikolore' "akzioa" egin zuen urriaren 22an Ordizian. Jendearen arreta erakarri eta taldearen berri emateko aprobetxatu zuten taldekideek.




GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687
* Depresioak
* Harremanetarako arazoak
* Beldurrak
* Antsiak
* Segurtasun eza
Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk BEASAIN



## Azurmendi 4. Euskal Herriko txapelketan

Urriaren 26an Donezteben jokatu zen Euskal Herriko aizkolari txapelketan arriarandarrak iazko 4. postua errepikatu zuen. Minutu erdira izan zuen Migel Mindegiaren 3. postua.

# Aitor Perez Arrieta eta Mikel Gaztañaga profesionaletara

## *Labarca2-Baque taldearekin fitxatu dute*

Mikel Gaztañaga itsasondoarra eta Aitor Perez Arrieta zegamarra profesional mailara igoko dira datorren denboraldian. Aurten afizionatuetan aritu diren Labarca2-Cafes Baque taldeak eman die profesional mailan aritzeko aukera. Txirrindulari afizionatuek profesionaletara igotzeko hainbat arazo dituzten garai hauetan berri pozgarria jaso dute bi goirerritarrek.







## Aspek ez dio kontratua berrituko Xabier Imazi

Abenduaren 31n bukatuko zaio Xabier Imaz pilotari segurarrari Aspe enpresarekin duen kontratua. Eta Eibarko enpresak ez du kontratua berritzeko asmorik azaldu.



## Kilometroak baserri bideetatik, ohar bat besterik ez

Joan den urriaren 5ean, Goierriko eskualdean izan genuen Kilometroak-en ospakizun apartan, zehazki Lazkaoko herrian antolatu eta garatu zenaren harira ingurukoak garenon harridura isladatu nahi genuke.

Egunak lagundu ez bazuen ere, hor izan ginen, beste hainbat eta hainbaten artean, euri jasa eta ostarteak pasaz, megafoniatik behin eta berriro Goierriko eskualdea osatzen duten 18 herriek edo 39 – 40 mila biztanleak zertaz bizi diren ezagutzeko deialdia entzunez. Irratiz ere beste horrenbeste, behin eta berriro mezu bera igortzen zen. Jasotzen zen mezuan, Goierrik industri eta zerbitzuak besterik ez zituela zirudien, eta horren atzetik eskualdeko zenbait eragile eta enpresa aipatzen ziren.

Egungo gizarteak daraman bilakaera honetan, geroz eta nabarmenago agertzen den leloa errepikatzen da. Alegia, jendeari luzatzen zaion mezua, soilik errenta ekonomiko nabarmen bat sortzen duten jarduerak kontatzen dutela eta ez lurraren gehiengoa zaindu eta gestionatzeaz arduratzen direnenak. landa eremuetan bizi diren baserritarren jardunenak.

Horrela, Kilometroak eginez, etorritakoak ez dira jabetuko ibilbidean zehar zeuden belardi eta terrenoak bertako beserritarrenak zirenik, ez eta bertan jarritako txoznen garraioa besteren artean traktore, karro zein baserritarren eskulanei esker jarri zirenik, lekuak txukunduz, besteok zapaldu, lokaztu eta zikintzeko... Beno, festa, festa da. Horrela, laino eta aterkien eragozpenak gaindituz paisai paregabeaz gozatu ahal izan zen, belartzi, harizti, pinudi eta lizardi ondotik, behi, txekor eta txahal, zaldi, behor eta muxal, ahari eta ardi, oilo eta oilasko... ikusiaz, handik eta hemendik, ibilbidetik pasatako baserrietan. Hauek, gizarte mailan ekonomikoki zer suposatzen duten ez dakigu benetan (batzuen ustez %3 baino gutxiago), baina orokorrean gure herriaren nortasunean eta zehazki Kilometroak bezelako festa batean, gure euskal kultura eta izakeran zer esan handia daukagulakoan gaude.

Enpresa batzuk festarako dirua jarri zuten, besteok antzinatik jasotako mezua eta gure izardia.

Inork nor garen jakin nahi badu, jo dezala Goierriko baserri eta azoketara, geroz eta gutxiago bagaude ere, oraindik, lurraren gehiengoa kudeatzen dugu, 43.147 hektarea gure 34.200 ardi, 4.500 larre behi, 900 esne behi eta abar aberekin, belardi, soro, baratz eta basoak erabiliz. Goerritarrak gara eta ez gara haizeaz bizi!

*Joxe Manuel Zubizarreta eta*
*Manex Aranburu*
*(Goimenen izenean)*

## Berriro ere iruzurrik ez

Estatutua eta autonomia hil dira. Marko politiko berria behar dugu. Duela 25 urte Euskal Herriak ezetz esan zion Konstituzioari. Estatutuaren 23. urtemugan, amaitu da autonomiaren garaia, ireki da etorkizuneko markoaren eztabaida.

Ibarretxe planak ez du konponbiderik ekarriko. Irtenbide demokratikoaren garaia iritsi da. XXI mendean ditugun arazo estrukturalei aurre egiteko plana behar dugu, Euskal Herri osoarentzat eta behin betikoz irtenbide demokratikoa ekarriko diguna.

Euskal Herria, zazpi herrialdeak, autodeterminazioa, herri-kontsulta, eztabaidarako oinarriak. Euskal Herria, zazpi herrialdeak, eskubide zibil eta politikoak, autodeterminazioa eta herri galdeketan oinarritutako plana da konponbiderako giltza, proiektu politiko guztiak ahalbideratzeko baldintzak sortzen dituena.

'Elkarrizketari bai'. deialdia eragile eta herritarrei. Proposamen ezberdinak dira jada mahai gainean. Euskal Herriak guztien artean adostutako Plana behar du. Alderdi politiko, sindikatu eta mugimendu sozialen arteko Plana gauzatu behar da. Baldintzarik gabeko elkarrizketa da Plana adosteko metodoa.

Azkenik, herritarrei proposamen honen aldeko lana esparru guztietara zabaltzeko deia luzatzen diegu.

*Axular Barandiaran (Goierriko Ezker Abertzalearen izenean)*




MUJIKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA
✗ LEIHOAK, ATEAK eta abar
✗ ESKAILERAK NEURRIRA

Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

IBAI ONDO

AROZTEGIA
Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea
Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

# Gaztainondoa, garai zaharrak hobeak izan zirenekoa

Hotza berriro ere guganaino iritsi deneko honetan guztiok jaten ditugu gustura gaztaina xigortuak. Mendeetan zehar gaztainadiak oso hedatuak egon dira Euskal Herrian, batez ere isurialde kantauriarrean, eta garrantzi handia izan zuten baserri askoren eguneroko bizitzan. Udazkenean zehar jasotako gaztainak gorde egiten ziren neguan zehar goseari aurre egiteko, saldu edota trukean erabiltzeko; gainera, bere egurra oso estimatua da zurgintzan, ebanisterian eta galtzear dagoen otargintzan.

Baina egun ditugun gaztainadiak antzina bizi izandako garai gozoetatik geratzen diren azken hondarrak baino ez dira. Urrun geratu dira gaztainadiek gure mendietan milaka hektarea betetzen zituzten garaiak (1950. urtean 14.500 ha baino gehiago betetzen zituzten Euskal Herrian). Egun zuhaitz bakan batzuk baino ez zaizkigu geratzen han-hemenka banatuak eta daudenak ere ez dira egoera onenean aurkitzen.

Azken hamarkadetan gaztainadiek izan duten gainbeheraren eragileak onddoek sortutako bi gaixotasun izan dira: txankroa eta tinta.

Txankroaren jatorria Asian dagoela uste da eta eragilea Cryphonectria parasitica onddoa da. 1938an Italiara iritsi zen eta handik Europa osora zabaldu zen urte gutxiren buruan. Txankroak gaztainondoen azaleko zauriak, enborreko pitzadura naturalak eta adar gazteen intsertzioak erabiltzen ditu zuhaitza kutsatzeko. Bere sintomak lehenengo adar gazteetan eta azal fineneko guneetan azaltzen dira, beranduago zatirik zaharrenetan: enborreko azala gorritu eta finagoa egiten da, pitzadurak agertzeraino; adaburu eta hostoak zimeldu egiten dira eta onddoaren egitura ezberdinak ere begi bistaz ikusgai egiten dira. Egun txankroa etenik gabe hedatzen ari da Euskal Herrian.

Euskal Herrian tintari buruz daukagun lehen berria 1871koa da, Ondarroa eta Lekeitio artean azaldu zenekoa. Handik hedatzen joan zen eta egun penintsulako iparralde osoan zehar zabaltzen da. Hala ere, eta txankroa ez bezala, gehiago hedatzen ari ez dela dirudi. Gaixotasun honen eragilea Phytophtora cinnamoni onddoa da. Egoera normaletan onddo hau lurreko materia organikoaz elikatzen bada ere zenbaitetan parasito bihurtu eta gaztainondoen sustraiak kutsa ditzake. Kutsadura sustrai txikietara mugatzen bada (sustrai nagusira iritsi gabe) landareak ahulduta bada ere aurrera egin ahal izango du; baina sustrai nagusia kutsatzen bada guztiz ahultzen da gaztainondoa, hiltzeraino. Kutsatutako zuhaitzen adarrak lehortu egiten dira, hostoak garaia baino lehen erortzen dira eta gaztainak ere kalitate gutxikoak izan ohi dira; baina tintak jota daudela ziurtatuko duen froga enborraren azpialdean gar-itxurako orban beltzak azaltzean datza (gaztainondoak tintari aurre egiteko duen erreakzioa da).

Bi gaixotasun hauei aurre egiteko modurik eraginkorrena hauekiko erresistenteak diren gaztainondo barietateak lortzea da. Honetarako bertako gaztainondoak kanpoko barietateekin hibridatzen dira, gaixotasunei aurre egiteaz gainera gaztainak kalitatezkoak izatea bermatu asmoz; beste bide bat era naturalean erresistentziak garatu dituzten landareak bilatu eta hauetatik ale berriak ateratzean oinarritzen da. Azken urteetan tinta eta txankroari aurre egiteko gai diren gaztainondo transgenikoak lortzeko ikerketak ere egiten ari dira Galizian.

Gaixotasunek gaztainondo populazioak erabat murriztu dituztenez egun oso zaila da bertako gaztainak topatzea. Gaztaina-xigortzaileei erosten dizkiegun gaztaina gehienak kanpotik ekarritakoak dira. Beraz, garai bateko zaporea duten bertako gaztainak jan nahi dituenak baso eta landa zokoetan geratzen zaizkigun gaztainondo apurren bila joan beharko du.

***Joseba Garmendia***

***Landar Lan taldeak egindako orrialdea***

***Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44***

## LIBURUA

✔ Sarda Taldearen **'Ekologia eta Ingurugiroaren Gida'**, Gaiak, Donostia 2000. Hiztegi tematiko honek era erraz eta atseginean, Ekologia eta Ingurugiroaren oinarrizko konzeptuak ezagutu eta ulertarazi nahi ditu, baita gure planeta zaintzeko estrategiak azaldu eta pentsamendu kritikoa garatu.

## JAKIN BEHARREKOAK

✔ **Elur urtea ezkur urtea** dela esaten da eta hala gertatu ere, nahiz eta udaran lehorteak gogor estutu, haritzak ez du ezkurrik galdu eta orain nabarmentzen da baso orbel artean bota berri duten fruitu piloa. Ea biltzera animatzen garen!, orain leku lehorrean gorde eta abenduan, ezkur horiek 4 bat gradutara frigorifikoan gorderik udaberrian ereiteko prest izango ditugu.

✔ Gure artean horren ugari diren **perretxiko zaleak** jada hara eta hona dabiltza baso eta larreetako fruitu preziatu hauen bila. Baina ez gara bakarrak! Basasagu, zozo, kakalardo, bare... eta animalia abar luze batek ere gustura dastatzen baititu.

✔ **Ur-zozoarentzako garai gogorrak izango dira** hauek. Hegazti hau urpeko ornogabeez elikatzen da eta udazkeneko uholdeek zaildu egingo diote harrapaketa. Aurten jaio diren txitoen % 80ak ez du negua gaindituko.

## *Eustaten 2001eko Goierriko euskararen datuak aztertuta*

# Goierriko gizarteak gizarte-bizitza euskaldunagoa eskatzen du

**EUSTATek argitaratu berri ditu, Interneten bederen, 2001eko EAEko euskararen datuak. Gaurkoan, ezagutzarenak bakarrik aipatuko ditut. Ondoko orriko taulan dituzue Goierriko datuak herriz herri.**



| | Euskald. | % | Ia-eusk. | % | Erdald. | % | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1996 | 26.292 | *66,75* | 4.857 | *12,33* | 8.237 | *20,91* | 39.386 |
| 2001 | 26.186 | *68,24* | 5.071 | *13,21* | 7.119 | *18,55* | 38.376 |
| | - 106 | *+ 1,49* | + 214 | *+ 0,88* | - 1.118 | *- 2,36* | - 1.010 |

Zer gertatu da azken bost urteetan, 1996 eta 2001 urteen artean? Argazki azpiko taulan dituzue datuak.

Hasteko biztanleak gutxitu dira Goierrin. 1996an baino 1.010 biztanle gutxiago bizi ginen 2001ean. Etxe berri asko egin da eta egiten ari dira, baina biztanleak gutxitu egin dira. Etxe horiek denak norentzat ari ote gara egiten? Zer pentsatu ugari ematen dit horrek, baina utz dezadan gai hori, gaurkoa beste bat da eta.

Euskaldunak % 1,49 igo dira erlatiboki 5 urtetan, urteko % 0,298. Ez da igoera handiegia gaur egun Goierrin dauden baliabideentzat (irakaskuntza, euskaltegiak, administrazioko baliabideak, lan-munduko planak, etab.). Aldiz, pertsona euskaldunak zifra absolututan gutxitu egin dira, 106 gutxiago 2001ean.

Ia-euskaldunak dira ugaritu diren bakarrak, 214 pertsona gehiago, hots, % 0,88 gehiago. Urteko % 0,176. Ez da asko hainbeste ikaste-jardunbide abiarazita egonda.

Azkenik, erdaldunak 1.118 gutxitu dira bosturteko horretan, % 2,36. Urteko % 0,472. % 20tik behera kokatu dira eta gainera, adin nagusienetan dago erdaldunik gehien.

Administrazioak lekuan lekuko egoera soziolinguistikoa zifra batean emateko erabiltzen duen adierazlea kalkulatuz gero (euskaldunak + 0,5 x ia-euskaldunak), 2001eko datuen arabera, Goierrin, % 68,24 + 0,5 x % 13,21 = % 74,84 ematen du. Hau da, oro har biztanleen hiru laurdenak euskaldunak dituen gizartea. Gainera, 1981az geroztik, gutxiago edo gehiago beti handituz joan da zifra hori, beraz, 2003 honetan jada zerbait handiagoa izango da eta ondorengo urteetan are gehiago handitu behar du.

Horrek zer esan nahi du? Ba administrazioak, zerbitzu

Blues Brothers
BEASAIN

ZUZENKI
AHOLKULARITZA
Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa
etxekin
www.txekin.net
Etxebizitzen salmenta: Legorreta Beasain Orendain
Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta:zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

# 2001eko euskararen ezagutza Goierrin

2 urtez goitiko biztanleria, euskara-maila orokorraren arabera. Biztanle-kopuruaren arabera ordenatutako taula

| | Euskaldunak | % | Ia-euskaldunak | % | Erdaldunak | % | Biztanleak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Beasain | 6.865 | *58,27* | 1.792 | *15,21* | 3.124 | *26,52* | 11.781 |
| Ordizia | 5.192 | *59,71* | 1.646 | *18,93* | 1.858 | *21,37* | 8.696 |
| Lazkao | 3.016 | *63,03* | 681 | *14,23* | 1.088 | *22,74* | 4.785 |
| Idiazabal | 1.786 | *87,89* | 126 | *6,20* | 120 | *5,91* | 2.032 |
| Ataun | 1.430 | *94,64* | 46 | *3,04* | 35 | *2,32* | 1.511 |
| Zaldibia | 1.276 | *87,16* | 109 | *7,45* | 79 | *5,40* | 1.464 |
| Legorreta | 992 | *75,09* | 85 | *6,43* | 244 | *18,47* | 1.321 |
| Zegama | 1.136 | *89,31* | 85 | *6,68* | 51 | *4,01* | 1.272 |
| Segura | 1.076 | *89,44* | 80 | *6,65* | 47 | *3,91* | 1.203 |
| Ormaiztegi | 911 | *80,34* | 107 | *6,65* | 116 | *3,91* | 1.134 |
| Olaberria | 463 | *52,26* | 152 | *17,16* | 271 | *30,59* | 886 |
| Itsasondo | 441 | *78,61* | 64 | *11,41* | 56 | *9,98* | 561 |
| Ezkio-Itaso | 480 | *90,91* | 34 | *6,44* | 14 | *2,65* | 528 |
| Gabiria | 389 | *94,65* | 20 | *4,87* | 2 | *0,49* | 411 |
| Zerain | 234 | *93,98* | 12 | *4,82* | 3 | *1,20* | 249 |
| Arama | 143 | *89,38* | 11 | *6,88* | 6 | *3,75* | 160 |
| Mutiloa | 140 | *91,50* | 10 | *6,54* | 3 | *1,96* | 153 |
| Gaintza | 125 | *91,50* | 4 | *6,54* | 1 | *1,96* | 130 |
| Altzaga | 91 | *91,92* | 7 | *7,07* | 1 | *1,01* | 99 |
| **Guztira** | **26.186** | *68,24* | **5.071** | *13,21* | **7.119** | *18,55* | **38.376** |

publikoek, lantegiek, dendek, elizak, merkataritzak, kudeategiek, bankuek, aseguruek, kirol-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, aisialdikoek, kulturakoek eta gainerako gizarte-zerbitzuek, Goierrin zerbitzu guztiak euskaldunei euskaraz eskaintzeko prest egon behar dutela eta aukera horiek gainera, gehiengo nabarmenarekin izan behar dutela. Badakigu jakin, leku askotan oraindik, gehiegitan, euskaldunok erdara erabiltzera bortxatzen gaituztela hainbat zerbitzuk eta baliabidek. Edota erdaldunekin berdintasunean jartzearen izenean, erdara derrigorrez nahasten digutela hainbat ekitalditan.

Gero, askok esango dute noski, erabilera ez dela zifra horien parekoa. Noski, hori ezinezkoa da egiten den eskaintzarekin eta egiten diren antolamenduekin. Batezbesteko datu horiek dituen eskualdean eta gutxieneko ezagutza duten herrietan ere hirutik biko euskaldun-adierazlea (% 66) izanda, zerbitzuetan ezin litezke berdintasun-printzipioak edota beti erdara euskararekin nahastu beharrekoak erabili. Hori, segadaren alde ezkutua baino ez da. Gainera, 40 urtetik beherakoetan adibidez, datu horiek izugarri aldatzen dira eta % 80tik gorako zifratan sartzen dira. Goierriko gizarteak jada, duen baino askoz ere gizarte-bizitza euskaldunagoa eskatzen du. Erabileran gertatzen den beherakada, eragile askoren emaitza da, bana nagusietako bat, zerbitzuen eta lanaren eskaintza erdalduna edo mistoa da. Agian erabilerez ere zerbait esan liteke beste batean. Oraingoz ezagutzaren datu hauekin gelditzen gara, baina ez ahaztu Goierrin datu horiek askoz hobeak izan behar luketela eta hori lortzeko baliabide guztiak jarri beharrean gaudela.

***Andoni Sarriegi Eskisabel***


Xenkegi
DEKORAZIOA
Tel: 943 889 113 Faxa: 943 028 429
xenkegi@euskalnet.net
Senpere Merkatalgunea, 25
Sukaldeak
Bainuak
Ateak
Zoruak
Armairuak
BEASAIN


# San Martin jaiak Araman

### Azaroak 7, ostirala:

**20:00etan:** Txupinazoa.

**20:30ean:** Herri afaria.

**Ondoren:** Epelde eta Larrañagaren saioa.

### Azaroak 8, larunbata:

**11:00etan:** Txirrindulari igoera, Itsasondotik Aramara.

**12:30ean:** Futbol derbia Itsasondo eta Aramaren artean.

**14:00etan:** Haur eta gazteentzako bazkaria.

**15:30ean:** Haur parkea izango da arratsalde osoan zehar.

**18:30ean:** Patata tortila lehiaketa.

**23:00etan:** Etxabe anaiak.



### Azaroak 9, igandea:

**11:00etan:** Meza.

**Ondoren:** Soka-dantza.

**13:00etan:** Pala txapelketako finala.

**18:00etan:** Gazteen pilota partida: Aramako Unanue eta Iribarria, Ordiziako Lopez eta Huertas-en aurka.

**Ondoren:** Herri-kirolak.

**19:30ean:** Sagardo dastaketa.

**Ondoren:** Dantza erakustaldia izango da.

**Amaitzeko:** Herriko trikitilarien saioa.

### Azaroak 10, astelehena:

**20:30ean:** Gaztaina jana Tapia eta Leturiak alaiturik.

### Azaroak 11, asteartea: San Martin eguna:

**10:00etan:** Txistularien ere-sia.

**11:00etan:** Meza.

**Ondoren:** Hamaiketakoa.

**13:00etan:** Toka-txapelketa

**16:00etan:** Mus txapelketa.

**17:00etan:** Haurrentzako jokoak.

**Ondoren:** Txokolate beroa.

**21:00etan:** Azken traka.

# Betagarri, Ken Zazpi eta DJ Bull taldeen kontzertua, dohainik

San Martin jaiak pasatu eta hurrengo larunbatean, azaroaren 15ean, festa izango da oraindik ere Araman. Izan ere, kontzertu *"historikoa"* antolatu du Udalak. Puntapuntako taldeak izango dira pilotaleku estalian, gaueko 11etatik aurrera: Betagarri eta Ken Zazpi taldeak, eta amaitzeko, goizaldera arte, DJ Bull. Sarrera dohainik izango da.

Kontzertu historikoa izango dela diogu, Araman, sekula, ez delako neurri honetako kontzerturik antolatu. Pilotaleku estaliak ere, lehenengo aldiz hartuko du era honetako ekitaldi bat. Eguraldiaren beldurrik ez da izango beraz. Txosnaren bat ere jarriko dute pilotalekuan.

### Aramako gazteei oparia

Une honetan Euskal Herrian punta-puntan dauden taldeekin osatu du kontzertua Udalak. Aurrekontu handia hartu bere gain Udalak, baina herriko gazteek merezi dutelakoan daude. Mari Jose Olazabal alkateak adierazi digunez, *"udaletxean sartu ginenean, ikusten genuen herriko jaietan jubilatuentzat eta haurrentzat ekitaldiak izaten zirela. Gazteentzat zerbait jartzen hasten ginenean, musika talde batzuk eskatzen zizkiguten, baina talde garrantzitsuak izaten ziren eta ezinezkoa izaten zen plazan jartzea. Aurrekontua ere handia izaten dute gainera. Eta gazteentzako ezer antolatzen ez dugunaren irudipena daukagu. Gazteak baztertuta ditugun sentipena daukagu. Oraingoan beraz, opari bat bezala egitea erabaki dugu"*, dio alkateak.

Udal talde gaztea dago benetan, 34 eta 29 urtekoak dira guztiak eta gazteengandik gertuago sentitzen direla aitortu digute.

### Herri txikien aldeko aldarrikapena

Kontzertu erraldoi honekin beste aldarrikapen bat ere egin nahi du Udalak: *"Aramak badaukala gaitasuna eta interesa horrelako ekintza bat antolatzeko. Badirudi hildako herri bat dela baina kontzertu honekin hemen gaudela, bizirik gaudela eta fundamentuzko gauzak egin ditzakegula aldarrikatu nahi*




*dugu"*. Bestalde, *"nik uste gauza ezberdinak eskaintzea aberatsa dela. Araman gauzak egiten direla ikus dezala jendeak"*.

Horrelako gaietan esperientziarik ez izateak sortzen dituen bildurrei eta kezkei aurre egiteko prest daude aramarrak. Alkateak gogoratu nahi izan du, Itsasondoko tren geltokitik bost minutura gelditzen dela Aramako herria. Beraz, trena erabiltzeko deia ere egin dute udaletik.

# Aseguratu orain zure furgoneta

## Inork ez dizu merkeago eskainiko

**ehnelur**
euskal herriko nekazarien elkartasuna

**TOLOSA**
Nafarroa Etorbidea 6 - 2.
Tel. 943 653590
Tel. 943 653568

**AZPEITIA**
Iberotarren Plaza, 5 Behea
Tel. 943 813928



**Oraingoan, abantaila gehiago eskuratu ahal izango dituzu Furgonetaren asegurua kontratatzean.**

Merkatuko preziorik onena eskaintzen dizugu. Zure ekonomiari egokitutako hainbat produktu eta prezio dituzu aukeran; gainera, 24 orduko bidaia-laguntza izango duzu urteko 365 egunetan, eta, hori guztia, jakina, betiko kalitate-zerbitzuaren bermearekin.

| | Hirugarrenekiko asegurua beirak barne | | Arrisku oroko asegurua | |
|---|---|---|---|---|
| Renault Express 1.4 | 251,30 € | 41.813 pta. | 479,10 € | 79.716 pta. |
| Citroen C15 D | 253,78 € | 42.225 pta. | 518,92 € | 86.341 pta. |
| Citroen Berlingo 1.6 SX | 261,09 € | 43.442 pta. | 575,05 € | 95.680 pta. |
| Mercedes Vito 2.2. Combi | 383,09 € | 63.741 pta. | 1.027,45 € | 170.953 pta. |

Prezioa kalkulatzeko 45 urteko gizonezkoa hartu da eredu gisa, 15 urteko gida-baimena eta %30eko deskontua duena

# SAN MARTIN JAIAK ARAMAN



*Jai zoriontsuak herritarroi eta kanpotik zatozten guztioi!*

*Azaroaren 7tik 11ra*

*Azaroaren 15ean kontzertua*

*ZATOZ ARAMARA!*











# IV. Ideia eta proiektu berritzaileen sariketa








**Proiektuaren betebeharrak:**

-Goierriko eskualdean garatu daitekeena beharko du izan
-Eskualdean gauzatu gabeko proiektua izatea
-Txosten bat aurkeztea, non azaldu beharko den: Helburua; Justifikazioa; proiektuaren garapen memoria eta aurrekontua (ahal dela).

**Sariak:**

1º saria: 1.000 euro.    2º saria:  500 euro.

Gainera, proiektua lantzeko 3.000 eurotako beka eta jarraipen laguntza eskainiko da. Inbertsiorako ere dirulaguntza izango da,proiektua eskualdean gauzatzekotan.

**Epeak**

-Aurkezpen epea 2003ko azaroaren 17an amaitzen da.

**GOIMEN ELKARTEA**
**Santa Maria, 4 - 20.240 Ordizia - Tlf: 943 161244 - Fax: 943 161463 - e-mail: goimen@euskalnet.net**






# ZEGAMAKO SAN MARTIN FERIA 2003

## AZAROAK 15 LARUNBATA

Antolatzailea: ZEGAMAKO UDALA

# Azaroak 15: San Martin azoka Zegaman

**9:00etatik 12:30era pilotalekutik Urgainberri arteko eremuan:**

✔ Herriko abereen lehiaketa. Behiak, behorrak, ardiak (ardi eta ahari bateko taldea), bildotsak (5 urruza eta ahari bateko taldea).

**Oharra:** kanpainarik egin gabeko abererik ezin da ekarri, ahuntzak barne.

✔ Euskal oiloen erakusketa.

✔ Perraketaren erakusketa.

**9:00etatik 14:00etara eliza eta udaletxeko arkupeetan eta pilotalekuan:**

✔ Landare, fruitu eta barazkien erakusketa.

✔ Artisau eta eskulangintza erakusketa.

✔ Kaikugintza, saskigintza, harigintza, ehungintza, artilezko galtzerdiak, tailaketa, talogintza, xaboi naturala e.a.

✔ Gazta antzinako erara. Baserriko makinari erakusketa, kioskoko plazan.

**10:00etan:** Herriko kaleetan zehar, bailarako txistularien kalejira.

**11:00etaik 13:00etara:** Pilotalekuan, Urbia eta Aizkorriko Artzainen arteko 5. Gazta Lehiaketa.

**11:00etatik 14:00etara:** Kultur etxean, Pintura Tailerreko ikasleen lanen erakusketa.

**11:00etatik 14:00etara:** Udaletxean, Zegama-Aizkorri maratoiari buruzko erakusketa.

## Epaimahai sonatua

Gazta lehiaketako epaimahaian besteak beste ondorengo pertsonai ezagunak ak izango dira: Edurne Pasaban, Juanito Oiarzabal, Aimar Olaizola, Txomin Perurena eta Xabier Eguzkitze.

**13:00etan:** Pilotalekuan, abere lehiaketaren sari banaketa.

**13:30ean:** Pilotalekuan, Gazta lehiaketaren sari banaketa. Irabazlearen 12 gaztako lotearen zozketa. (Errifak aurretik salgai egongo dira)

**Ondoren:** lehiaketara aurkeztutako gaztaren dastaketa bertaratuentzat herriko elkarteen laguntzarekin.



**14:30ean:** Maiora plaza inguruan, txistularien saioa.

**17:00etatik 19:00etara:** Kultur etxean, pintura tailerreko ikasleen lanen erakusketa.

**17:30ean:** Herriko kaleetan zehar, kalejira, buruhaundi eta erraldoiekin, txistulariek alaiturik.

**19:00etan:** Herritarren arteko eskuz binakako San Martinetako 5. txapelketa.

**Oharrak:**

✔ Eguraldiak laguntzen ez badu, ekintza gehienak pilotalekuan egingo dira.

✔ Tartalo elkarteak txakolin dastatzea egingo du eguerdian.

## Azaroak 6, osteguna:

**19:30ean:** Postrei buruzko ikastaroa emango du Koldo Lasa, Bergarako Koldo Lasa jatetxekoak, Amezti Elkartean.

## Azaroak 11, asteartea:

**19:30ean:** Gazta dastatzea ikastaroa emango du Jose Ramon Agiriano, Idiazabal Jatorriko izendapeneko kideak, Kasino Elkartean.

## Azaroak 12, asteazkena:

**19:30ean:** Julian Bereziartua sendagilearen hitzaldia. Gaia: 'Neguaren eragina, bronkio, juntura eta bihotzeko gaixotasunetan', Olarango Jubilatuen Elkartean.

## Azaroak 13, osteguna:

**18:00etan:** Alberto Iñurrategik Aitxuri Herri Eskolako ikasleekin solasaldia, Olarango Jubilatuen Elkartean.

**19:00etan:** Alberto Iñurrategiren 'Gure Himalaya' ikustentzunezkoa, Olarango Jubilatuen Elkartean.

## Azaroak 14, ostirala:

**22:30ean:** Profesionalen pilota partiduak. Lehen mailako profesionalen eskuz binakako bi partidu.

## Azaroak 16, igandea:

**11:00etan:** Pilota partiduak. XII. DV torneoa. 1. partidua, junior maila: Mailabelloso eta Galarraga, Galdakaoko irabazleen aurka. 2. partidua, helduen maila: Dominguez eta Altuna Aizarnazabalgo irabazleen aurka.

**17:00etan:** Takolo, Pirritx eta Porrotxen Katxiporreta emanaldia, pilotalekuan, Udalak eta Guraso Elkarteak antolaturik.

**Ondoren:** Pilotalekuan bertan, txokolate beroa bertaratuentzat.


GOIBURU HARATEGIA
Bertako haragia
Urbiako gaztan berezitasuna
San Martin 2 Tel.: 943 80 11 26
ZEGAMA

TXANTON Tabernak
egun ona pasa dezazuela opa dizue
Tel.: 943 80 11 45 ZEGAMA

COVIRAN
EDURNE JANARIDENDA
Egun ona opa dizuegu!
943 80 15 66 ZEGAMA

## 'Linue Zegama':

# "Linuaren tradizioa berreskuratu nahi dugu, diseinu berriekin uztartuz"

**Lihozko edo linuzko oihalak egiten ditu 'Linue Zegama' kooperatibak. 6 emakumezkok osatutako kooperatiba sortu berria da berau. Merkatuan lekua aurkitzeko asmotan, linuzko produktuen eskaintza zabaltzen ari dira pixkanaka. Zegaman dute tailerra eta denda.**



**Linue Zegama kooperatiba**

6 emakumezkok osatzen dute Linue Zegama kooperatiba: Ascen Arizkorreta, Susana Vivó, Kamino Albisuiribe, Josune Bibanko, Asun Etxegia, Pili Gereñu.

Ascen Arizkorreta zegamarra kooperatibako 6 kideetariko bat da. Berak eman dizkigu 'Linue Zegama' kooperatibari buruzko nondik norakoen berri.

Jon Ituartek egin zituen ehungintza tailerraren lehen urratsak Zegaman. Ondoren, INEMen bitartez, ikastaroa eman zen. Bertan ikasitako eta ibilitako sei emakumezkok erabaki zuten enpresa sortu eta, eskuz, lihozko produktuak egitea.

Italiatik ekartzen duten lihoa oihaletan bihurtzen dute Zegamako tailerrean. Artisau lanarekin, lihozko oihalei forma eman eta diseinu zahar eta berriekin, hainbat eta hainbat produktu egiten dituzte: kortinak neurrira, toailak, esku trapuak, mantelak... *"Merkatua aztertzen ari gara eta jendeak zer eskatzen duenaren arabera ari gara lanean, etengabe produktu berriak atereaz"*, zehaztu du Ascen Arizkorretak. Manteleria handiak, mantak... egiten hasteko asmoa ere badaukate.

Bufanda eta txalak ere egiten dituzte. Hauek, alpakarekin. Tapizak ere bai. Alfonbrak egiteko aukera izango dute. Enpresa opari munduan ere sartu nahi dute. Karpetak edo agendak forratzen dituzte.

'Linue Zegama' marka daramate produktu guztiek. Langa bat da hain zuzen ere beraien logotipoa. *"Gure lan honetan, hariak batzuk luzetakara joaten dira eta gero trama sartzen zaio zeharretara. Langak gainera gure inguruan esan nahi handia du"*.

### Merkatu zaila

Merkatuan lekutxo bat egitea zaila ari zaie gertatzen 'Linue Zegama'-koei. Baina inongo etsipenik gabe, batean eta bestean ateak jotzen ari dira, han eta hemen informazioa jaso eta ikasten. Ascen Arizkorretak adierazi digunez, *"jendeari asko gustatzen zaio, baina nahiko garesti ateratzen da. Merkatua aurkitu beharra daukagu. Gero aztertu behar litzateke, jendeak, linuzko oihal bati zer eskatuko liokeen"*. Gabonei begira, amona jantziarentzako, lehengo erako aurre mantalak egiten ari dira orain.

Jende gehienak ez omen du baloratzen lihozko oihala. *"Badago jendea eskuz egina eta linuzkoa izatea baloratzen duena baina jende askok ez du baloratzen. Normala da, kanpotik oihal asko sartzen da eta horien prezioak ez dauka zerikusirik gurearekin. Kalitateak agian ere ez, baina ez dakit zenbateraino baloratzen den kalitatea prezioaz hitz egiten ari garenean"*, gaineratu du Arizkorretak.

### Diseinu berriak

Eskuz egindako lihoaren oihalik ez da gaur egun erabiltzen. Orain 'Linue Zegama' kooperatibak eskaintzen du aukera hori. *"Gaur egun linuzko oihalak perfektuak dira, makinan egiten dituzte eta. Guk eskuz egiten ditugu, linua bera eta azkeneko akabatua ez da berdina. Lehenengo eginkizun bat jasotzen ari gara."*.

Hori bai, tradizioa berreskuratuz, diseinu eta erabilpen berriak emanez. *"Liburu bat badago herri bakoitzean zein marrazki egiten zen biltzen duena. Zegaman hiru edo lau bazeuden eta hori berreskuratu egin nahi dugu. Baina*

URBIZU
☎ 943 80 19 99
ZEGAMA

ROGS. 11.141462 - 14.01.462/SS
OILOTEGIA

*beste asmo bat ere badugu: linuarekin gaur egungo koloreak erabiliz, beste gauza asko egiteko modua badago. Gorria eta laranja koloreko banakako mantelak adibidez"*. Ideiak ez zaizkie falta.

Lihoaren aldeko aldarrikapena egin nahi izan dute lerro hauetatik: *"oso ondo garbitzen da. Lixatzeko edo plantxatzeko, hezetasun dezente duela egin behar da. Zenbat eta gehiago garbitu, oihala orduan eta goxoago. Eskutrapuak, adibidez, oso egokiak dira kristala lehortzeko, litxik ez du uzten eta"*. Abantaila bat ere azpimarratu du zegamarrak: enkarguzko lanak egiten dituztenez, norberak aukeratzen du diseinua.

### Lan handia

Lan ordu asko eskatzen ditu lihozko oihalak. Hari guztiak banan-banan jarri behar dira, zulo txiki batetik sartu eta ordena egokian. Ascen Arizkorretak adierazi digunez, prestatze hori egiteko bakarrik, bi egun behar dira.

Hortik aurrera, egin behar den diseinua egiten hasten dira hariak alde batera eta bestera jarriz eta pedalei emanez. Nolabaiteko partitura bat izaten dute gidari.



### Turismoarekin lotura zuzena

Linue Zegama denda ireki berria dute, lehengo farmaziaren lekuan. Turismo informazio bulegoaren zerbitzua ere eskaintzen da bertan. Astebukaeretan Egurraren museoaren ardura ere Linue Zegama enpresak darama.

Turismoarekin egin duten lotura hori naturala dela adierazi digu Ascen Arizkorretak. *"Azken batean Linue Zegamak zerikusia dauka turismoarekin. Lehengo erako telarrak dauzkagu tailerrean, lan guztia eskuz egiten dugu. Eta hori erakargarria da jendeak ikusteko. Gure lanak badauka zerikusia turismoarekin. Osagarriak dira. Beraz, nahi duenari tailerra ere erakusten diogu"*.

Astelehenetan izan ezik, egunero dago irekita turismo bulegoa. Egurraren museoa, berriz, asteburuetan bakarrik egongo da irekita, turismo bulegoaren ordutegi berean. Jarraian dituzue ordutegiak: asteartetik ostegunera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18.00etara; ostiraletik igandera, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Abuztuan 180 lagun pasatu ziren Informazio Bulegotik. *"Ez genuen usteko hainbeste turista ibiliko zenik gure herrian. Gu gustura gaude abuztuko datuekin"*.

Ordu askoko lana da eta horrek garestitzen du produktua. *"Momentuan ezin dugu prezioa merketu, horretarako kalitatea jaitsi beharko baitugu"*.

### Proiektua saritua

Aurretik prestatze lanean aritu ondoren, ekainean hasi ziren lanean buru belarri. Ideia interesgarria iruditua, bi sari jaso dituzte dagoneko. Goiekiren eskutik, ideia berriztatzaileen lehiaketan lehenengo saria jaso zuten. Eusko Jaurlaritzaren, Garapena izeneko saria ere bai. *"Kuriosoa izan zen. Aurkeztu ziren ideia guztiek teknologia berriekin zerikusia zeukaten eta gu ginen bakarrak, eskulanarekin zerikusia geneukanak"*.

Zegamako plazan, lehen botika zen lekuan, denda jarria dute 'Linue Zegama'-koek, turismo bulegoaren zerbitzua ere emanez. Beraien lana ezagutzera emateko tresna egokia da denda. Bertan, ehungailu edo telar bat ere badaukate, beraiekin egindako lanekin batera.

Lihoaren mundua ezagutzera emateko ere, ikastaroak emateko asmoa ere badaukate 'Linue Zegama'-koek.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA
Promozioa: auto ordua 12 euro
Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

oskarbi
oinetakoak
Tel.943 88 41 04 kale Nagusia 34 BEASAIN
Tel.943 88 19 44 kale Nagusia 25 ORDIZIA

kutxa
gizarte ekintza

# Maximo Aierbek 'Ataungo kanta zaharrak' liburua idatzi du:

# "Kantua gure ondarea da eta herri bakoitzak gordetzeko saiakera egin beharko luke"

**Ataun aztergai bekaren barruan, 4. liburukia osatzen du Maximo Aierbek idatzitako 'Ataungo kanta zaharrak' liburuak. Kantuak herri baten historian duen garrantziaz jabetuta eta kantu asko eta asko galtzear zeudenez, Ataungo kantak biltzea izan du helburu ataundarrak.**



*Maximo Aierbe : "Bizirik dagoen kantu bakarra urte zahar egunean kantatzen den 'Berri onakin gera' da. Santa eskeko koplak dira altxorrik preziatuena eta duela 5 bat urte berreskuratu genuen. Eate abesbatzarekin kantaren bat edo beste berreskuratzeko asmoa daukagu"*

Ezaguna da Maximo Aierbek musikarako duen zaletasuna. Horrek bultzatuta eta kantuak galtzeko arriskuan zeudela ikusita, 'Ataun aztergai beka'ri esker, 35 abestiko bilduma osatu du ataundarrak. *"'Ataungo kanta zaharrak' bilduma honetako kanta gehienak erabat galduta ditugu usadioari dagokionean, eta behin betirako desagertzeko arrisku bizia dute, baldin eta idatzita jartzen ez badira"*. Gogoeta horrek bultzatu zuen ataundarra lan honetara. Aspaldi hasi zen lan horretan. *"Kartzelan 5 urte eta erdi egin nituen, 1983a kalera atera arte. Gauzak gogoratzen hasi eta denbora nuenez, gogoratzen nituen kantak idazten hasi nintzen"*. Bekaren aukera ikusita, lana osatzen aritu da azken urteotan, etxez etxe. Aierbek aitortu digunez, tabernetan egin du lanik gehien, batekin eta bestearekin egonez.

35 kanta bildu ditu guztira, 10 atal ezberdinetan banatuta: eske kantak (10 kanta), sehaska kantak (4), haur kantak (7), jolas kantak (6), taberna giroko kantak (2), eztei giroko kantak (1), erromantzeak (1), kanta narratiboak (3), eresiazko kantak (1) eta alegiazko kantak (1).

Kantuaren gaiaren arabera dago ordenatuta liburua. Kantu bakoitzaren hitza eta melodia bildu ditu Aierbek, sarreratxo bana eta hainbat argazki zahar lagun direla. Kantaren hitzak biltzeko arazorik ez du izan Maximo Aierbek, han eta hemen idatziak baitaude. *"Kantaren hitzak gordetzen badira ere, doinurik gabe, urteak joan ahala, kopla, bertso edo poesia besterik ez izatera mugatuko dira. Beraz, kanta hauek doinu eta guzti idaztea bururatu zitzaidan"*. Hori bai, azkenengo kantuaren melodiarik ez du inon aurkitu ataundarrak.

Zailtasun bat baino gehiago izan du Maximok, kantu baten hitzak eta melodiak aldaera bat baino gehiago bai baitu. Aukeraketa egin beharra, bertsio bakarra aukeratu behar izan du. Bi irizpide hartu ditu kontuan: *"kantaren*

TAPIA
TELEKOMUNIKAZIOAK eta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Enpresa baimendua
- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta industrirako instalazioak
- Automatismoak - Kontrolak - Mantenimenduak
Ibabe Industrialdea, 21
☎ 943 88 95 94
LAZKAO

Aseguru korreduria
SEGURUEN PROFESIONALAK
Jai zoriontsuak denoi!
MUNDUATE
Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO




hitzak ahalik eta osoenak izateaz gain aldaera egokienak edo erabilienak izatea, bereziki doinuari ondo egokituak izatea; eta bestetik, kantuaren doinua musikaren estetikan (melodiaren gardentasuna, erritmo, tonuera, eta abar) oinarritua izatea".*

## Nesken kantak eta mutilen kantak

Bitxikeriaren bat edo beste ere aurkitu du Maximo Aierbek bilduma honetan: San Nikolas kantuetan, hiru bildu ditu: bata neskek kantatzen zutena, bestea praka luzeak janzten hasitako mutil koxkortuek kantatuak eta bestea haurrek kantatuak. Gabonetan ere, kantu ezberdinak zituzten neskek eta mutilek.

## Kantak Ataungoak al dira?

Baiezkoa erantzuteko adina arrazoi omen dago ezezkoa ere erantzuteko. *"Baina, zerk egiten du kanta bat herrikoia? Mendeetako erabilerak"*. Dena den, bildutako kantek ba omen dute berezitasun bat: doinua. *"Beste herrietako kantak hartzen baditugu, kanta ugari aurkituko dugu kopla berberak edo beretsuak dituztenak, baina doinu desberdina erabiltzen dugu"*. Adibide gisa, 'Berrionakin gera' kantua jarri du Maximok. Beasainen eta Itsasondon kantatzen dituzten kopla beretsuak dira, baina doinua guztiz desberdina da. 'Loa, loa' sehaska kantarekin ere antzeko zerbait gertatzen da. *"Amaia Zubiriak kantatzen duena ezaguna zaigu oso baina Ataunen beste doinu batekin kantatzen da"*, zehaztu du.

## Herriaren aberastasuna

35 kanta bildu ditu guztira. Ataunek bere kantutegian aberastasun handia daukan galdetuta, zera erantzun digu Maximo Aierbek: *"Herri guztiek daukate aberastasun*



*hau. Ez dakit zenbateraino baloratzen dugun, kantua, herri baten izatea baita. Bildu ezean, ez dakit konturatzen garen zer galtzera goazen. Gaur egun ez dago kantezaletasunik. Herri guztiek dute aberastasun handia kantugintzak eta herri guztiek saiatu beharko lukete beraien kantuak gordetzen, edo gutxienez, jasotzen"*. Ataunen behintzat gordeta gelditu dira.

Hiru musika aditu historikoren hitzak ekarri ditu gogora Maximo Aierbek kantuaren garrantziaz jabetu gaitezen.

Resurreccion Maria Azkue: *"ezagutu dezagun gure benetako musika herrikoia, ez itxuratia, eta jakingo dugu gure herria maitatzen"*

Aita Donostia: ·*"Euskalduna ezagutzeko, eta ondo ezagutzeko, bere kanta aztertu behar da"*.

Charles Bordes: *"Inola ere ez da hobeto ezagutuko euskalduna bere kantetatik baino"*.

Azken hau, musikari frantziarra zen. Bitxikeria bat gehitu du Maximo Aierbek: *"bere garaian, Frantziako erregeak, hemengo kantugintza aztertzera bidali zuen. Pentsa nolako garrantzia ematen zitzaion garai batean"*.

## Herriaren ondarea

Ataundarraren esanetan, *"kantua gure ondarea da. Kantak balio historiko handia dauka, gure bizipenak biltzen dira kantuan"*.

Kantuaren garrantzia ikusita, herri bakoitzak bere kantu bilduma egitea aholkatzen du: *"Kantuak hitza eta musika ditu eta bietan ere aberastasun izugarria daukagu. Beraz, nik uste herri guztietan saiakera hau egin beharko litzatekeela."*.




ZUBIKOETA
GASOLINDEGIA
- Gasolina, gasoila A eta B
- Berogailuentzat gasoil banatzailea
- Autoaren garbiketa moeta guztiak

☎ 943 18 04 86 - faxa: 943 18 04 87
Zubikoeta industrialdea, 1 ATAUN

SUKIA
HARATEGIA
Festa onak pasa herritarrok!
San Martin
ATAUN © 943 18 03 45

JOAKIN ZUBELDIA
PINTURA-LANAK



© 943 18 02 46 ATAUN

KOLDO KEREJETA S.L

IGELTSERITZA
ETA
ERAIKUNTZAK
Tel/faxa: 943 18 02 56
Mugikorra: 629 44 94 60
Helbarrena, 27 ATAUN

# San Martin jaiak Ataunen





Azaroaren 2an Ataungo Hiru Auzoetako XXVI. Korrikaldiak eta XVIII. Barroko aire musikaldiaren barruan izan zen organo kontzertuak, San Martin jaiak iragarri zituzten Ataunen. Azaroaren 7an hasi eta San Martin eguna bitartean, hainbat eta hainbat ekitaldi izango da.

## Azaroak 7, ostirala:

**12:00etan:** Txupinazoa. Juntadizoa plazan eta ondoren poteoa trikitilariekin.

**14:00etan:** Koadrilen arteko bazkaria Bitor jatetxean.

**22:30ean:** Xukan taldearen 'Iturrian zer dago?' ikuskizuna.

**23:30ean:** Nekin taldearekin berbena goizalderarte.

**Ondoren:** DJ festa Oargi-Troskaetan.

## Azaroak 8, larunbata:

**12:00etan:** Toka Txapelketa Plaza Berrin.

**13:00etan:** Kalejira trikitilari eta buruhaundiekin.

**14:00etan:** Haurren bazkaria eskolan.

**Ondoren:** Jolasak.

**16:00etan:** Mus txapelketa Aizkoate Elkartean.

**17:30ean:** Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoak Herri Antzokian.

**21:00etan:** Herri afaria Bitor Jatetxean. (Txartelak bertan erosi ahal izango dira azaroaren 6a baino lehenago)

**Gauean zehar:** Mozorro gaua. Sariak banatuko dira.

**00:00etan:** Zirika taldearekin berbena goizaldera arte.

## Azaroak 9, igandea:

**9:30etan:** Dultzaineroekin kalejira.

**12:45ean:** Otsoa dantza taldearen saioa.

**13:00etan:** Herri kirolak saioa Zelaieta aurrean.

**18:00tan:** Jentilen etorrera.

**20:00etan:** Mondeju eta talo jana Kalustra Haundin.

**Goizaldera:** kantzontzilo eta kulero lasterketa.

## Azaroak 11, asteartea:

**11:00etan:** Trikitilariekin kalejira.

**12:00tan:** Meza Nagusia.

**13:00etan:** Zeberio eta Mañukorta bertsolariak Kalustra Haundin.

**13:00etan:** Salda Atseden Tokin.

**14:00etan:** Jubilatuen bazkaria Bitor Jatetxean.

**16:00etan:** Marrazki saioa liburutegian.

**18:00etan:** Pelota partiduak Auzoeta kiroldegian. **Infantilak:** Barreros Oliveira-Xabier Altuna Jon Ander Albisu- Jon Arratibelen aurka. **Jubenilak:** Asier Gonzalez-Ikaitz Goikoetxea Insausti-Olaranen aurka. **Afizionatuak:** Zubizarreta-Alberdi Arrieta-Mintegiren aurka.

### Erakusketa

Juanjo Dorronsororen pinturak ikusgai izango dira Herri Antzokiko aretoan. Azaroak 7, ostirala: 17:00etatik 20:00etara. Azaroak 8, larunbata: 11:00etatik 13:00etara. Azaroak 9, igandea: 12:00etatik 14:00etara. Azaraoak 11, asteartea: 17:00etatik 20:00etara.

San Martin jai zoriontsuak guztioi!
ERRO ATO AUNDI
Okindegia
943 18 03 64
San Martin auzoa
ATAUN

URBIETA JATETXEA
Festa zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 00 19 ATAUN (S. Martin)

Agurtzane
Ileapaindegia
Altzanipe, 2
☎ 943 18 02 93
ATAUN (San Martin)

ERAUSKIN
HARATEGIA - URDAITEGIA
KALITATEKO EUSKAL OKELA
Odokiak, mondeju beltzak eta txorizoak
San Martin jai zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 00 27 ATAUN

JOSUNE arrandegia
☎ 943 18 03 67 ATAUN
San Martin jai zoriontsuak!
IÑAKI BARANDIARAN arrandegia
☎ 943 88 00 56 San Jose, 29 LAZKAO

TEL. 943 18 00 37




San Martin Auzoa
ATAUN

Lazkao

# Amalur mendizale elkartearen ikasturte berria

Bertako antolatzaileak kezka handi bat dute: mendi irteerak ez dutela lortzen behar luketen arrakastarik. Aurten berriz Ikastolarekin batera elkartu dira ekintza hauek aurrera ateratzeko. Guraso guztiei bialdu zaie idatzi bat irteera hauen berri emateko eta era berean zer edo ozer gustokoa ez bada, iradokizun edo eskariak jasotzeko gustoa izango da, hobetzeko balio baldin badu behintzat. Honen helburuak garbiak dira. "*Batetik, eguneroko makinen kulturari, telebistari, segapotoari, ordenagailuari, eskaintzen zaion denbora ikusiz beharrezkoa ikusten delako aisialdian beste momentu batzuk izatea eta bestetik, aste barruan, agian lanez nahiko beteak izaten garenez aste bukaera gure lagun edo senitartekoekin egoteko aukera paregabea iruditzen zaigulako*".

Hauexek izango lirateke aurtengo mendi irteerak: **Azaroak 9**: Etxegarate-Lazkao. **Azaroak 23:** Murumendi.**Urtarrilak 18**: Urkiola (egun osorako), **Otsailak 15**: Aratz. **Martxoak 14:** Eskolarteko ibilaldi neurtua. **Martxoak 28:** Gorbea (egun osorako). **Maiatzak 9:** Lizarraga. **Maiatzak 30:** Xoxote (egun osorako). **Ekainak 12-13:** Bi egunetako irteera, Pirineotara. **Ekainak 20:** Txindoki. Informazio gehiago nahi izanez gero ikastolara deitu eta Ttanttonengatik galdetu.

## Pilota

Txapelketa aurrera dihoan bezala pilotariak ere aurrera dihoaz oso txapelketa polita eginez. Lehenagotik ordezkari asko baziren oraingoan infantilen maila aurkeztu beharrean gaude. Gipuzkoako txapelketan izena eman dute eta pasa den aste bukaeran jokatu zuten lehen neurketa. Ataunen jokatu zuten segurarren aurka eta 18-2 nagusitu ziren. Aste bukaera honetan, Tartalo-etxe, zegamarren aurka dute Ataunen. Kadeteek berriz atsedena izango dute, jubenilak Lazkaon jokatuko duten bitartean. Aurkariak San Estebango tolosarrak izango dira. Senior mailan, 3. mailakoak atsedena eta 2. mailako lehen bikoteak Tolosan jokatuko du San Estebanen aurka. Besteak berriz Lazkaon arituko dira altzatarren aurka.

*Aitor Tello*




## Eguzki Lore loradenda



Pasa den aste bukaeran Santu guztien eguna izan zenez ezin aipatu gabe utzi egun honetarako loradendak izaten duen arrakasta. Mari Cruz Estensoro dugu honen arduraduna eta berarengana jo dugu egun honetan zein mugimendu izaten den azaltzeko.

**Egun honetan mugimendua nabarmena da, baina aurretik zenbat denbora behar izaten da?**
Normalean, aste bete lehenago hasten gara enkargu guztiak betetzen baina zertxobait lehenago lokalak txukuntzen, prestakuntzak egiten…

**Zer da gehien eskatzen dena?**
Gehienak zentrua izaten dute eredutzat baina landareak ere izaten dira.

**Nola egiten dira zentroak?**
Era desberdin askotakoak egiten ditugu baina oinarria, tarroa esponja barruan daramala, ondoren loreak sartzen zaizkio eta gorako partean klabelinak, gladiolok edo larrosak. Azken hauek dira gehienak eramaten direnak.

**Lan guztiak etxean egiten al dira?**
Bai, etxeko bostok aritzen gara lanean, nire senarra eta hiru seme-alabak.

**Eta egunoroko lanaz?**
Hortik dator zailtasunik handiena. Egun guztian lanean aritu ondoren etxera etorri eta lanketa oraindik ere hasteko. Azken bi egunak lantegitik jai eskatu beharra izaten da eta emanez gero. Hala ere kanpoko jendea izaten da egun batzutako lanean, horrelako eskakizunekin..

**Kanpotik ere etortzen al da jendea?**
Bai, Goierri mailan izaten da mugimendua nahiz eta lazkaotarrak izan gehienak.

**Enkarguz ere lan egiten al duzue?**
Urte guztian zehar bai, baina egun honetarako jendeari eskatzen zaio ahal izanez gero behintzat eskakizuna denborarekin egitea edo jasotzera inguratzeko, bestela izugarrizko nahastea baita, baina eskatuz gero noski eramaten ditugula.

**Egun honetan eraman? Nora, hilerrira?**
Bai, harrigarria bada ere jendeak eskatzen du bertara eramateko. Normalean ez da arazorik izaten azken momentuko txikikeriak kenduta.

## Lazkaotar bat euro bat

Lazkaon Kilometroak egunean eguraldiak lagundu ez bazuen ere Irunberrin zorte okerragoa izan zuten Nafarroa Oinezeko antolatzaileek. Hori dela eta 'Lazkaotar bat euro bat' kanpaina jarri dute martxan ikastolakoek. Nafarroa Oinezen aldeko kontu korronteez gain, ikastolan bertan dirua jasotzen dute eta herriko tabernetan dirua biltzeko kutxak jarri dira. 5.000 euro biltzea da helburua.

Beasain

# Udazken kulturalaren azken txanpa

## Odolkiaren festa azaroaren 8an

XIX. Odolki lehiaketa ospatuko da egun honetan. Jatetxeetako pertsona ezagunek eta Beasaingo odolki kofradiaren bazkideek osatuko dute epaimahaia. Goierri, Tolosalde eta Urola Garaiko harakin guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Irabazleak, ohitura moduan, otsailaren 5ean, Loinazko San Martin egunean egiten den Kofradiaren urteroko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu. Gogoratu, Beasaingo Olano harategikoak irabazi zutela iaz.

Odolkiak lehiaketara aurkezteaz gain, herritarrek odolkiak dastatzeko aukera ere izango dute. Antolatzaileek odolki pintxoak eta edaria saltzen jarriko baitituzte. Eguerdiko 12etan emango zaio hasiera.

## Bertako produktuen peria

Bertako produktuen peria egingo da egun berean Loinazko San Martin plazan. Bertako produktuekin egingo den azoka berezi honetan, Euskal Herriko hainbat produktu erosi ahal izango dira, goizeko 10etatik aurrera egongo diren postu ezberdinetan.

## Beasaingo Paperak bildumaren 11. zenbakia

Azaroaren 10ean aurkeztuko da Beasaingo Paperak bildumaren 11. zenbakia, Usurbe Antzokian 19:00etan.

Beasaingo Paperak bilduma, gure herriaren historiari buruzko ikerketa sakonak egin eta ezagutzera emateko sortu zen. 11. zenbaki hau, 'Pilota Beasainen' gaiaren ingurukoa da. Igor Buenok egin du ikerketa lan hau. Herrian jokatu diren pelotaren modalitate desberdinak agertzen zaizkigu bertan, testigantza ugarik lagunduta.

2004ko Beasaingo Paperak dagoeneko bideratuta dago. Beasaingo kirol elkartearen ingurukoa izango da, izan ere datorren denboraldian, 2004-2005an, mendeurrena ospatuko dute.

## 'Prentsaren irakurketa' kritikoa tailerra.

Azaroaren 5ean, Udal Batzar Aretoan izango dira 18:00etan, Jara Calvo eta Oihana Altuna kazetariak.

## Umeentzako ekitaldiak

✔ **Zinea euskaraz**. Azaroaren 6an, Tinko elkarteak antolatuta, Usurbe Antzokian 9:30ean. 'Spykids 2' filma.

✔ **Haurrentzako zinea.** Azaroaren 8an Usurbe Antzokian 17:00etan, 'Canguro Jack' filma.

✔ **Erraldoi eta kilikiak.** Azaroaren 7an eta 14an, 18:30ean.

✔ **IX. Pintura-tailerra.** Azaroaren 9an, 12:00etan Joan Iturralde Plazan, Txilibutxof taldeak antolatuta.

✔ **Ipuin kontaketa**. Azaroaren 11n 18:00etan Kultur Etxeko Bibliotekan, Ane Aseginolaza eta Arantxa Muñoxen eskutik.

✔ **Antzerki emanaldia.** Dar dar taldeak, 'Pinotxo' antzezlana eskainiko du. Azaroaren 15ean, 17:00etan Usurbe Antzokian.

✔ **Eskulan tailerra.** Azaroaren 16an 17:30ean Joan Iturralde plazan, Txilibutxof taldeak antolatuta.

## Musika

✔ **Iñaki Salvador Trio.** Azaroaren 7an Usurbe Antzokian 22:15etan. Sarrera 9 euro.

✔ **Andoaingo Udal Musika Eskolako Banda.** Azaroaren 16an, 12:00etan kalejiran eta 13:00etan kontzertuan Loinazko San Martin plazan.

## Dantza

✔ **Aurtzaka dantza-taldearekin dantza-jaialdia.** Azaroaren 8an Loinazko San Martin plazan 18:30ean.

✔ **Kukai taldeak** '1937, gogoaren bidezidorretatik' ikuskizuna eskainiko du. Azaroaren 14an 22:15ean Usurbe Antzokian. Sarrera 9 euro.

✔ **Break Dance.** Azaroaren 15ean 19:00etan Gernika pasealekuan.

## Antzerkia

✔ **Golden Apple Quartet** taldeak '17 años Golden' antzezlana eskainiko du, azaroaren 12an 21:00etan Usurbe Antzokian. Sarrera 9 euro .

## Extremadurako eguna

Azaroaren 9an Loinazko San Martin Plazan ospatuko da Extremadurako eguna. 10:00etan Ohiko produktuen salmenta. 12:30ean eta 18:00etan Sones de Extremadura taldeko dantza eta abesti emanaldia La Bellota Taldeak antolatuta.

*Nekane Altuna*



## Astigarreta auzoko jaiak azaroaren 16an

**11:00etan:** Hamaiketakoa.

**12:00etan:** Meza Nagusia Astigarretako Tours-ko San Martinen elizan.

**12,45ean:** Udaleko Txistulari-bandaren kalejira .

**13:00etan:** Aizkolariak, Azurmendi eta Ugarteburuk hiru metro eta erdiko enborra ebakiko dute.

**14:00etan:** Herri bazkaria Astigarretako auzo elkartean.

**Ondoren:** Zeberio eta Mañukorta bertsolariak eta Laja eta Landakanda trikitilariak.

## Hitzaldiak Erretiratuen Etxean

Kutxak antolatuta eta Ongizate sailaren laguntzarekin hitzaldiak antolatu dituzte Erretiratuen Etxean. Hitzaldiak elebidunak izango dira eta irekiak gaiarekiko interesa duen herriko edozeinentzat. Arratsaldeko 6etan Erretiratuen Etxean izango dira hitzaldiak ondorengo gaien inguruan:

**Azaroak 10:** Gernu eta sexu arazoak 60 urtetik aurrera.

**Azaroak 24:** Ariketa: Osasunerako arriskurik gabe.

Idiazabal

# Zinema aretoaren proiektua aurrera

Zinema areto berria non jarri erabakitzeko Udalak izan dituen buru hausteak bukatu dira. Kokaleku ezberdinak aztertu ondoren, azkenean, Pilar Enea ondoan, errekaz bestalde egitea erabaki dute. Udalbatzak zinea egitea onartu du dagoeneko eta orain proiektua prestatzen ari dira. Dena den, eraikin berria zutik ikusteko, gutxienez, bi urte itxaron beharko da.

Zinema aretoa Pilar Enea atzean, errekaz bestalde, Udalak duen lur sailean egingo dute. Horretarako ordea, eremu horretako arauak aldatu beharra dauzka Diputazioak. Aldaketa hori egiteko urtebete behar da. Horrenbestez lanak hasterako 2005garren urtea izango da. Dena den, udalak eraikin berrirako aurre proiektua eskatuta dauka. Prest dagoenean herritarrei erakutsiko zaie, beraien iritzia eman dezaten.

Zine berria egiteko 200 milioi pezetako aurrekontua du Udalak. Lanak finantziatu ahal izateko, zineko lanekin batera, Pilar Enea alboan (Arretxe Elkartea eta Pilar Enea arteko zatian) Udalak etxebizitzak egingo ditu.

Zinema areto berria non egin erabakita, aspaldiko buru haustea alde batera utzi du Udalak. Proiektuari buruz hizketan hasi zirenean, areto berria Pilar Enea alboan egitea zen asmoa. Ondoren, Txomenane dagoen lekua aipatu zen. Gernikako arbolaren parkea (eliza ondoan) ere kontuan izan zuten. Azkenean, hasieran pentsatutako kokagunetik gertu egongo da zinema aretoa. Leku hori aukeratuta, Udalak, Idiazabalen dauden zerbitzuak herrian barrena banatu nahi ditu.

*Xabier Urteaga*



*Eskolaz kanpoko kiroletan atletismoan aritzen den taldea.*

## Eskola Kirola

Urriaren 25eko emaitzak: Mutil Benjaminek 1 eta 2 galdu zuten Laiotzen aurka. Neska Benjaminek 10 eta 0 irabazi zuten Aitxuriren aurka. Mutil Alebinek 4 eta 1eko emaitza lortu zuen Ormaiztegiko San Andresen kontra. Neska infantilek 9 eta 3 irabazi zuten Oianguren taldearekin izandako neurketan.

**Azaroaren 8rako partidak:** Mutil Benjaminak- San Benito (12:00etan), Neska Benjaminak – San Benito (Lazkaon), Mutil Alebinak – Laiotz (11.00) Neska Alebina – San Benito (9:00etan), Neska Infantilak – Zaldibia (10:00), Kadete Mutilak – Jesusen bihotza (Billabona) eta Kadete Neskak – Laskorain (13:00etan).

## Odol emaileak

202 odol poltsa (80 litro) bete ditu aurten Odol Emaileen elkarteak Idiazabalen. Odola emateko azkeneko aukera urriaren 22an izan zen. Egun horretan 78 herritarrek eman zuten odola. Horietako hirurentzat, emakumeak hirurak, lehendabiziko aldia izan zen.

Odola 25 bider eman dutelako, hiru herritarrek jaso dute aurten domina: Maria Dolores Eziolazak, Roberto Arribasek eta Agustin Insaustik.

## Eduardo eta Iparra

Urteroko moduan, udazken hasieran Eduardo eta Iparra omentzeko ekitaldiak egin dira Idiazabalen. Urriko azkeneko asteburuan, Gaztetxeak antolatutako omenaldia, bideo emanaldia eta mahai ingurua izan ziren. Aste barruan Paul Nicholsonek globalizazioaren aurrean herriek duten erronkari buruz emandako hitzaldia eta mus txapelketa azkarra egin zituzten. Omenaldia azaroko lehendabiziko asteburuan bukatu zen. Larunbatean Mikel Markezek kantaldia eskaini zuen. Igandean Iparra eta Eduardoren omenezko kaleetan lore eskaintza egin zen eta Atxurbi mendiko ekitaldiaren bukatu zen aurtengo omenaldia.

## Laburrak

● Sasietak sukaldean **erabilitako olioa biltzeko du** hilabetero, hileko azkeneko ostegunean, 13:40etatik 14:10ak artean. Olioa kristalezko edo metalezko ontzietan eraman behar da.

● Udalak datorren urteko aurrekontutik **%0,7 garapen bidean dauden herriei laguntzeko** erabiliko du. Informazioa eskatu eta eskariak aurkezteko epea azaroaren 18ra arte.

● **Jubilatuen Elkarteak** antolatuta 'Elikadura eta elikagaiak. Arriskurik gabeko elikadurarako jarraibideak' hitzaldia egongo da azaroaren 11n, asteazkena, arratsaldeko 7etan Pilar Enean.


Autowag, s.a.
Audi
☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN

GESTORIA BIOK
ASEGUROAK
✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
✖ Jubilazio, bizitza , etxebizitza eta kotxe aseguruak
☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

Ordizia

# Aurrekontuaren %1a Iparra-Hegoa lankidetza programarentzat

Ia 50.000 euro bideratu berri dira Gobernuz Kanpoko hainbat proiektu aurrera eraman ahal izateko. Urteko aurrekontuaren %1a da berau eta Iparra-Hegoa Lankidetza Programa garatzeko erabiliko da. Guztira 15 erakundek aurkeztu dituzte beste hainbat proiektu eta azkenik, Udalbatza Plenoak horietatik 7ri dirulaguntza ematea erabaki du. Urriaren 28an banatu zitzaizkien laguntzok Gobernuz Kanpoko Erakundeei.

Jarraian laguntza jaso duten erakundeak, zenbatekoak eta proiektuak:

- ✖ Manos Unidas: Bolibian dagoen Aymara bailarako helduen urrutiko heziketa sustatzeko 9.742 euro.
- ✖ Izan Elkartea (haurtzaro eta gazteriaren aldekoa): Dominikar Errepublikan lehen hezkuntzako programa garatzeko 4.316 euro.
- ✖ Rokpa Euskadi Elkarte mediku-humanitarioa: Tibeten dagoen Yushuko zonaldeari mediku ikaskuntzak eta kehen hezkuntza eskolak aurrera eramateko 2.210 euro.
- ✖ Mugen Gainetik: Guatemalako Oxec ibaiko haraneko 6 komunitatetan gizon-emakumeen berdintasuna kontuan hartuz, nekazaritza eta basozaintzaren garapenerako 7.412 euro.
- ✖ Taupadak: Bolibiako oihanetako eskoletan, hegazti eta erleen bizitza hobeto ezagutzeko modulo bat ezartzeko 6.830 euro.
- ✖ Gipuzkoako Oskar Romero Solidaritza Batzordea: El Salvadorren argindarra sartu, helduen alfabetatzea eta oinarrizko aleak ekoizteko 8.292 euro.
- ✖ Hirugarren Mundua eta Bakea: Mexicon dagoen Lacandonako abelbideetako Tzetal sorterriko emakumeen hezkuntza integrala eta autogarapenerako 8.734 euro.

Esan bezala, 7 proiektu hauez gain beste 8 ere aurkeztu dira, baina arrazoi desberdiak tarteko, atzera bota dira.

## Zergak gora

2004ko aurrekontua osatzeari begira dira jada udaletxean eta udal tasa eta zergei dagokionez aldaketak proposatu dituzte dagoeneko. Iragarki taulan izango da azaroaren 9an bitartean. Erreklamaziorik jaso ezean behin betirako onartuko da ordenantza.

Alejandra Iturrioz alkate andrearen hitzetan *"nahiz eta Udalaren egoera ekonomikoa hain txarra ez izan, ez da oso ona ere; horregatik, gobernu taldearen proposamena izan da aurreikusitako KPIa igotzea orokorrean, eta salbuespen batzuekin, proposatutako igoerak handiagoak direnean, alegia. Hori guztia, hurrengo lau urterako aurreikusitako proiektuak burutzeko behar adina baliabide eskura izateko"*. Alkatearen hitzetan hau ere *"proposamen honekin lortu nahi dena zera da, ematen diren zerbitzuak gero eta autofintzatzekoak izatea eta datozen urtetan burutu nahi diren proiektu garrantzitsuei aurre egiteko baliabideak izateko"*. Hori bai, zehaztu gabe geratu dira zeintzuk diren proiektu garrantzitsu horiek.

Honela, beraz, 2004ko tasa eta zerga guztiek KPIa aplikatuta igoera izango dute eta batzuek hori baino gehiago gainera.

**Aitor Calvillo**

## Euskara eskolak

Euskara ikasi edota alfabetatu nahian bazabiltza baduzu oraindik aukera Goiztiri AEK euskaltegian. Jarraian martxan diren taldeak, ordutegiak eta mailak: Dorrea Etxean goizeko 9etatik 11etara oinarrizko urratsa, eguerdiko 2,30etatik 4,30etara goi urratsa eta arratsaldeko 6etatik 8etara oinarrizko urratsa eta 6,30etatik 8,30etara bitartean behe urratsa. Autoikaskuntza gela ere eskaintzen da (EGA, alfabetatzea eta goi urratsak).

Bestalde Urdaneta ikatetxean eguerdiko 2,30etatik 4,30etara guraso talde bat ari da eta ordu berean beste talde bat Jakintza Ikastolan. Goiztiri AEK Orkli lantegian ere euskara eskolak ematen ari da, enpresa honek iaz abian jarri zuen euskara planaren barruan.

Talderen batean hasteko prest bazaude deitu 943-889174 zenbakira edota joan Goiztiri AEK euskaltegiak Dorrea Etxean duen lokalera (Santa Maria Kalean, postetxe gainean).

## Musika barrokoa

Barroko Aire XVIII. Musika Barrokoaren egunen barruan azaroaren 8an, larunbata, Donotiako Barroko Taldea arituko da iluntzeko 8etan Elizan. Eta 15ean, berriz, larunbata hau ere, Ensemble Diatessaron ordu eta leku berean. Aurrerago beste bi saio ere izango dira.

## Bertsolari txapelketa

Iker Zubeldia zuzenean sailkatu zen Gipuzkoako Txapelketako finalerdietarako. Ordizian burututako saioan punturik gehien lortu zuen bertsolaria izan zen beasaindarra (398). Unai Agirrek 371,5 puntu lortu zituen, Alfontso Jimenezek 370, Leire Ostolazak 361, Unai Muñoak 359 eta Felix Zubiak 354,5. Azken bostok gainontzeko saioak amaitu arte itxaron beharko dute sailkatu siren ala ez jakiteko.

## Nikolas Lekuonaren erakusketa Gasteizen

Gasteizko Artium museoan, Nikolas Lekuona margolari ordiziarraren lanen bilduma dago ikusgai.

Gabiria

# Dantza soinuen garaia

Hil honen 16an dantzari txiki eguna ospatuko da herrian, Goruntz taldeak antolatuta, orain urte batzuk abian jarri zen ekimenari jarraipena emanez. Urtean zehar Gabiriako dantza taldea euren herrietara gonbidatzen dutenei egingo zaie orain ordainetako gonbitea.

Lau dantza taldek burutuko dute egun horretako egitaraua: Lazkaoko Oin-arin, Ordiziako Jakintza, Urretxu-Zumarragako Irrintzi eta bertako Goruntzek.

Goiz partean bilduko dira ekintza guztiak. Horrela, goizeko 11etan taldeei harrera egingo zaie plazan, eta hamaiketakoa banatuko da. Eguerdian hasiko da saioa, bakoitzak txandaka hiruzpalau dantza eginez lehendabizi, eta guztiek batera ondoren. Bazkal aurretik amaituko da dantzaren eguna.

## Labur-labur

● Gabiriako udala **Udaltalde 21** proiektuan sartu da, urriaren 2ko sinaketa ekitaldian. Ingurumena eta garapenari dagokion Tokiko Agenda 21 deritzan plana udaletan txertatzea du helburu Goierriko udalen bazkunde honek.

● **KZguneak** ateak ireki zituen urriaren 27an, herritarrei Interneteko ikastaroa eskaintzeko zereginarekin. 36 lagunek eman dute izena eta taldetan sailkatuta ekin diote informatikari. Kurtsoa amaitu ostean ordenadore batzuk iraunkorki utziko dira, zerbitzuak jarrai dezan.

● **Parrokiako antzokia** berritzeko lanen barnean beste urrats bat egin da: antzeztokia goitik behera eraberritu dute, eskenategi berria altxaz.



## Jubilatuen egunaz

Hirurogei lagunetik gora bildu ziren joan den urriaren 26an Ostatun herriko erretiratuen omenez egiten den bazkarira. Eguerditik hasita giro atsegina izan zuten egun osoan, bazkalondoko soinu eta bertsoz alaituta. Aiton-amona helduenei saria ematerakoan, aurten Baztarrikako Maria Pikasarriri eta San Estebango Joxe Mari Garmendiari egokitu zaie, eurak baitziren aurrez omen-ikurra jaso gabe zeuden zaharrenak.

*Aimar Maiz*

Arama

# Jubilatuen bidaia Bilbora

railaren 6an egin zuten irteera Aramako jubilatuek. Aurten Bilbo izan zuten ikusleku. Goizeko 8ak inguruan atera ziren Aramako plazatik autobusez, guztira 20 bat pertsona inguru, laguntzaile eta guzti.

Lehenik eta behin, Zornotzan egin zuten geldialdia, badakizue indarrak hartu behar dira goizean goizetik, bestela.... Ondoren, Gugenheim handia ikustera pasa ziren; eguerdi parterako berriz, barkua zain zuten Bilbo ingurua hobekiago ezagutu ahal izateko. Bertan, nola ez, aperitibo txiki bat eman zitzaien. Eta azkenik Artxandara igo ziren, ingurua pixka bat ezagutu, ondo bazkaldu eta bueltan berriro Aramara. Egia esan behar bada, ederki ibili ziren gure jubilatuak; eskerrak bai antolatzaileei eta baita bertan laguntzeko prest egon ziren guztiei ere.



Ataun

# Gipuzkoako bertsolari txapelketa



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetako fasea ere igaro da jada. Oñatin izan zuten zita urriaren 25ean, sei bertsolariek. Tartean Iban Urdangarin gaztea. Seigarren postuarekin konformatu behar izan zuen ataundarrak 337 puntu lortu zituen. Saio txukuna izan zen, oso parekatuta ibili ziren sei bertsolariak, baina urduritasuna nagusitu zen hasierako lanean. Zortziko txikian fin aritu ziren guztiak ere, entzuleek gehien gozatu eta txalotu zuten ariketa izan zela kontuan hartu behar da.

Puntuari erantzun eta hitza gaitzat hartuta egindako lanak ere txukun bete zituzten bertsolariek, eta hemen hasi zen elkarren arteko aldea nabarmentzen. Lan honetan aipatu behar da Urdangarinek ez zuela oso itxura ona eman, hortxe galdu zuen besteekiko aldea. Hala ere, kartzelako lanean eman zuten onena bertsolariek, nahiz eta gaia nahiko bihurria zen. Hiru bertso nahi zuten doinu ta neurrian kantatu behar izan zituzten 'duela gutxi sexu aldaketa egin duzu. Zure buruari begira zaude'. Orohar aipatu, ikusmin handia izan zela Oñatiko Santa Ana antzokian, jendez erabat bete zen. Beste saio guztiak bukatu arte itxaron beharko du Ibanek sailkatuko den edo ez jakiteko, saio bakoitzeko irabazlea ez beste guztiak puntuazioen arabera sailkatuko baitira.

*Doltza Barandiaran*




## Altzanipeko zubia egun batzutan itxita

Udaletxetik adierazi digutenez, Altzanipeko zubian dagoen heldulekua aldatzeko lanak burutu ahal izateko, urriaren 27 27tik aurrera, egun batzuetarako zubia itxita dagoela antzemango zenuten honezkero. Egoera honek sortu ditzakeen eragozpenak ulertu eta barkatzeko adierazi digute udaletxetik.

## Zirkulazio arazoak herrian

Azken bolada honetan auzo ezberdinetan antzeman daitezkeen zirkulazio arazoak direla eta, herritarron artean kontzientziazio plan batekin hastea egoki izango dela pentsatu du Udalak. Egunero gaizki tusita dauden ibilgailuren bat topa dezakegu, gainera zenbait kasutan istripu bat gertatzeko arriskuarekin, espaloietan kotxeak igota, errepidean autoak tusita, espreski aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan,.. kotxe eta baita zenbait kamioi ere ikus daitezke. Askotan ibilgailua gaizki uzten dugun lekutik gertuen dagoen aparkalekura bi pauso besterik ez daude, baina hala eta guztiz ere ibilgailua ate barruraino sartu nahi izaten dugu. Hau horrela, Udaletik herritar guztioi dei egiten zaigu, guztiok arazo honetaz kontzientziatu gaitezen.

## Santu guztien eguna

Azaroak 1 santu guztien eguna dela eta, urriaren 24tik azaroaren 7ra bitartean, hiru auzoetako hilerrietako ateak egun guztian irekita egongo dira. Era berean, hilerrien atarietan edukinontziak jarriko dira, bai aurrez eta baita ondoren ere, zaborrak bota ahal izateko.

## Sukaldeko olio bilketa

Sasietak, herri handietan egiten den sukaldeko olio bilketa zabaltzea erabaki du eta Ataungo herria ere bilketa horretan sartu da. Bilketa hilean behin egingo da, beti asteko egun berdinean, Ataunen lehen eguna joan den astelehenean hilak 3 izan zen. San Martin eta San Gregorioko plazetan. Eguerdi aldera furgoneta bat pasatuko da megafoniaz herriko kaleetatik oharra ematen eta olioa hartzeko. Bukatzeko herriko plazan egongo da denbora batez norbaitek bertara eraman nahi badu.

Kontuan izan, sukaldeko olioa bilduko dela, ez kotxeko olio zaharra. Olioa beirazko, plastikozko, metalezko edo tetra-brik erako edozein ontzitan gorde daiteke. Olioa gordetzen duten herritarrei oparitxo bat emango zaie, xaboi-pastilla bat hain zuzen ere.

Hileko lehendabiziko astelehenetan izango da bilketa, joan den astelehenean bezala, San Martingo plazan, 13:10etik 13:40era bitarte egongo da furgoneta. Eta San Gregorioko plazan, 13:45etik 14:05 bitarte egongo da.

## Zinea Herri Antzokian

Jadanik hasi da Herri Antzokian aurtengo denboraldiko zine emanaldia, urriak 23 izan zen lehen eguna. Datorren urteko apirila arte iraungo duen zine denboraldian antzokiaren ustiaketa, iaz bezala, Urbieta S.L.-ren esku egongo da. Astero-astero ostegunetan gaueko 9,30etan, ostiraletan eta larunbatetan gaueko 10tan eta azkenik igandeetan arratsaldeko 4,30etan gaztetxoentzat zinea ikusgai izango da.

Iazko denboraldian ikusleen kopurua zertxobait jaitsi zela eta, aurtengoari begira garrantzitsua litzateke herritarrok kontzientzia hartzea horrelako zerbitzu bat mantentzeak kostu batzuk dituela eta ondorioz denon ahalegina eskatzen duela.

## Ramon Barandiaran sakramentinoari omenaldia

Urriaren 26an, Ataungo Udalak omenaldia eskaini zion 100 urte bete dituen Etxebeltzeko Ramon Barandiaran sakramentinoari. Omenaldia Tolosako sakramentinoek duten egoitzan izan zen. Bertan Udalak omenduari lore-sorta eta plaka bat "Mende bat, mundu bat, bakean eta maitasunean" irakur zitekeena oparitu zizkion.

# Bittor

San Martin zoriontsuak!

# Jatetxea




- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Oturuntzak...

- Menua eta karta

*Aparkalekua*

*Lorategi pribatua*

*Umeentzako parkea*

☎ 943 18 00 33 ☎

☎ 943 18 00 84 ☎

**ATAUN**

# GOIERRIKO ODOLKIGILEAK



Arg.: Xabier Mujika

**Manuel Barandiaran HARATEGIA**



**2001. urteko odolki txapeldun Beasainen eta 2002.eko txapeldun Ordizian**

Kale Nagusia, 32 ☎ 943 88 18 91 ORDIZIA

HESTEBETEAK "ORMAIZTEGI" ODOLKIAK

**JESUS MARI DEBA**

*2001 eta 2002an San Andresetako txapelduna*

Nekazaritza eta Arrantza Sailak baimendua

- *Barazki eta arroz-odolkiak*
- *Mondejuak*

Bereziak harategi eta jatetxeetarako

Anduaga Industrialdea, 9 ☎ 943 72 17 10 EZKIO-ITSASO
Zumalakarregi Plaza, z/g ☎ 943 88 26 59 ORMAIZTEGI

**OIARBIDE**

**HARATEGIA**



Odolkiak
eta
bertako haragia

Elosegi, 52 ☎ 943 88 17 17
Elosegi, 15 ☎ 943 16 05 16
**LAZKAO**

*Olano*

*Harategia*

KALITATEKO EUSKAL OKELA



Odolki eta
etxeko haragitan
berezitasuna

**Andra Mari, 3 ☎ 943 88 07 78 BEASAIN**



KALITATEKO EUSKAL OKELA

*iñaki Zubeldia*

Harategia Urdaitegia

**Bertako haragiak, odolki, lukainka, saltxitxa eta aurrez prestatutako janariak**

**K. Nagusia, 14 ☎ 943 88 27 47 BEASAIN**

**J. MUJIKA**

**Harategia**



Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
**BEASAIN**

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etxea ☎ 943 16 06 02
**ORDIZIA**

Zegama

# San Martin azoka

San Martin feriaren inguruan, Urbia eta Aizkorriko artzainen arteko 5. gazta lehiaketa, herri mailako ganadu lehiaketa, profesionalen pilota partiduak, artisau erakusketa, hitzaldi eta ikastaroak antolatu ditu Udalak, eta Guraso Elkartearekin batera Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoen emanaldia.

Alberto Iñurrategi mendigoizalea eta Julian Bereziartua sendagilea ere izango dira hitzaldi bana ematen.

## Postreei buruzko ikastaroa

Azaroaren 6an, iluntzeko 7,30etan Amezti Elkartean, postreei buruzko ikastaroa emango du, Bergarako Koldo Lasa, Jatetxeko Koldo Lasa sukaldariak. Bertan hiruzpalau errezeta desberdin emateaz gain, errezetak praktikan ere jarriko ditu.

Izenematea Udaletxean egin behar da azaroaren 4 bitartean, eskaera orria betez eta kostua 2 eurokoa da.

## Gazta dastaketa ikastaroa

Azaroaren 11n, iluntzeko 7,30etan Kasino Elkartean, Jose Ramon Agiriano izango dugu, Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Izendapeneko kidea, gaztaren dastaketa bat eginez eta gazta desberdinen sekretuak azalduz. Izenematea Udaletxean egin behar da, azaroaren 4 bitartean, matrikula 2 euro izango da.

Bi ikastaro hauetan parte hartzen duenak, 3 euroko prezio bateratua ordainduko du matrikula moduan.

## Julian bereziartuaren hitzaldia

'Neguaren eragina, bronkio, juntura eta bihotzeko gaixotasunetan' izango da, Julian Bereziartuk Jubilatuen Olarango Egoitzan emango duen hitzaldiaren gaia. Azaroaren 12an izango da, iluntzeko 7,30etan.

## Alberto Iñurrategiren ikustentzunezkoa

'Gure Himalaya' ikustentzunezkoa botako du Jubilatuen Olarango Egoitzean, azaroaren 13an, iluntzeko 7etan. Aurrez, Aitxuri Herri Eskolako ikasleekin izango du solasaldia.

## Profesionalen pilota partiduak

Azaroaren 14an, gaueko 10,30etan izango dira Udal pilotalekuan.

## San Martin azoka, azaroaren 15ean

Egun handia, larunbatean izango da, bertan izango baita, Urbia eta Aizkorriko artzainen arteko 5. Gazta



Lehiaketa eta baita herritarren arteko Ganadu Lehiaketa ere. Horrezaz gain, bailarako txistulariak izango dira goiza alaitzeko, artisau, euskal oiloen erakusketa, perraketa, gazta aintzinako erara egiten, taloak, baserriko makinari, buruhandi e.a. izango dira. Aurten aipagarria da, Gazta Lehiaketara aurkezteko eremua zabaldu egin duela Udalak eta, Aizkorriko Parke Naturalak bere barnean hartuko dituen herrietako artzainei ere aurkezteko aukera eman zaiela, ondorioz, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoa osatzen duten herrietako artzainez gain, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Legazpi eta Araba aldetik Barruandiako artzainak ere gure artean izango ditugula.

## DV torneoko pilota partiduak

Azaroaren 16an, goizeko 11etan, jokatuta dira, XII. DV Torneoko pilota partiduak Udal Pilotalekuan: 1. partidua: Junior Mailan, Belloso eta Galarragak, Galdakaoko irabazleen aurka jokatuko dute. 2. partidua: 2. partidua, Helduen Mailan, Dominguez eta Altunak, Aizarnazabalgo irabazleen aurka jokatuko dute.

## Takolo, Pirritx eta Porrotx

Azaroaren 16an arratsaldeko 5etan, Zegamako Udala eta Aizkorri Guraso Elkartearen arteko elkarlanean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango ditugu kiroldegian 'Katxiporreta' ikuskizunarekin.

Ondoren, bertaratu guztientzat txokolate beroa eta bizkotxoak izango dira Guraso Elkarteko partaideek antolatuta.

*Edurne Albizu*

## Aitor Perez Arrieta profesionalen mailan

2003 urtea ez dute Aitorrek eta bere inguruekoek ahaztuko izan ere, edozein txirrindularik txiki-txikitatik amesten duen ametsa bete baitzaio. Zer esanik ez bere sendi eta lagunak eta zegamar guztiok ere harro sentitzen garela, berriro ere Zegaman goi mailako txirrindulari bat gure artean izateaz. Labarca 2– Cafes Baqué, ekipoan korrituko du Aitorrek hurrengo deboraldian. Zorionak eta zorte on.

## KZ gunea

Zegamako Kzgunea 18 urtetik gorako pertsonentzat erabilgarri dago iaztik. Normalean bertara doanak nabigatzeko arazorik ez badu ere, inork laguntzarik beharko balu, begiralea ostiraletan goizeko 9etatik 11etara izaten da bertan.

# Segura

## Musika eskola inauguraturik

Urriaren 30ean inauguratu ziren musika eskolako lokal berrituak. Otxotegi aldera dagoen blokeko 2. solairuan bost gela egokitu dira musikagintzarako. Irekiera, Tobera musika eskolakoen, Kriseiluko txistularien eta herriko dantzarien emanaldiarekin burutu zen. Tobera musika eskolak aurtengoa 17. edizioa badu ere, Seguran 96/97 ikasturtean sortu zen. 52 haur daude matrikulatuta. 27 hezkuntza musikalean dabiltza, 7 gitarran, 6 akordeoian, 5 saxofoian, 4 pianoan, 2 panderoan eta bat trikitixan. 6 irakasle dabiltza Seguran.

## Umetxea zabalik

Zenbait gurasoren ekimenari esker, txukuntze eta material berritze lanak amaituta, aste honetan jarri da martxan umetxearen denboraldi berria. Negu partea, hotza, bustia, iluna eta luzea denez, umeak eta gurasoek hainbat jolas eta aktibitate eginez, aterpean egoteko aukera dute. Astelehenetik ostiralera, 16:30etik 19:00etara, txandaka, gurasoren bat egoten da bertako arduradun (ireki, txukundu eta itxi). Ordutegi horretatik kanpo, norbera arduradun izanez erabil daiteke.

## Dantza taldea

Udalak subentzionatutako 12 urtetik gorakoen 'Azpila' dantza taldeko 7 lagun ari dira urritik dantza ikastaroetan. Herri eskolak bultzatutako 12 urtez azpikoak azaroan hasiko dira. Interesatuak pasa den astean ziren izena ematekoak. Irakasle modura Saioa Arostegi arituko da.

## Futbola

**Alebinen talde berria.** Diputazioak, federazioak eta Errealak bultzatuta, 32 taldeen arteko lehiaketa hasiko da azaroaren 16an. 8 taldeko 4 multzo egin dira eta beraien artean jokatuko da lehen fasea. Igande goiz horretan 4 partidu jokatuko dira Seguran: Aizkorri-Billabona, Ostadar-Ordizia, Euskalduna-Tolosa eta Urola-Beasain. 10 urteko mutikoak dira, 8ko futbolean aritzen dira eta zelaiaren erdia erabiltzen dute, ordubetean bi partidu batera jokatuz.

**Asteburuan etxean: Kadeteak:** Aizkorri-Mariño, zapatuan, 11:00etan. **Errejionalak:** Segura-Hamaika bat, zapatuan, 17:00etan.

## Pelota

Urriaren 25ean hasi zen Gipuzkoako infantilen txapelketa. Eskualdeko fasean, Ander Kaloka, Eneko Montes eta Eneko Arzelus ari dira Seguratik. Iaz, Gipuzkoako selekzionatuen artean txapeldun geratu zen Jon Otegi Zegamako taldean ari da.

## Labur-labur

● **Udako bixitariak.** Aste Santutik hona, 2.515 pasa dira Ardixarreneko turismo bulegotik. Kanpotarrak, gero eta gehiago, Segurari buruzko erreferentziekin etortzen dira. Bixitarien artean, gehienak Euskal Herrikoak izan dira, ondoren, kataluniarrak, madrildarrak, frantziarrak, alemaniarrak, valentziarrak, argentinarrak, Gaztelakoak, Aragoikoak, murtziarrak eta andaluzak.

● **Pintura erakusketa.** Joxemari Telleriaren 15 margolan daude ikusgai Beasaingo Porteriako Aterpe tabernan, azaroaren 14 arte.

● **Euskal Herriko jantzien erakusketa.** VIII. mendetik XIX. mende arteko zenbait euskal janzkera ikusgai Elorripeko eraskusgunean.

● **Txirrindulari elkartekoek,** euren gastuei aurre egiteko gabonetako errifa atera dute. Herriko tabernetan eskuragai.

● **Telleriatarren bazkaria.** XII. Telleria eguna ospatuko da azaroaren 16an Liernin. 12:30ean meza eta ondoren bazkaria Liernin bertan.

● **KZgunea.** Azaroko ordutegia: 3tik 14ra, 18:00etatik 20:00etara. 17tik 28ra, 16:00etatik 18:00etara.

*Joseba Telleria*

# Luzapena elizako obran



*Elizako teilatuaren konponketa lanak. Arg.: Rafael Berasategi.*

Maiatzean hasi zuten elizako bobedaren konponketa lanei, teilatu guztiaren berritze lanak gehitu zaizkio. Hasiera batean sapaia bakarrik zen berrindartzekoa, uda amaierarako amaitzea espero zelarik. Lan horretan ari zirela, ordea, 1996an berritutako teilatuko teilak erabat mugitu zirela konturatuta, guztia berritzea erabaki zen. Bobedaren konponketa amaitua dute dagoeneko. Bertako harri bakoitza, hagatxo batez behetik gora torlojotu dute. Teilatuko lanak, berriz, irailean hasi ziren. Egurrezko habetzar guztiak frontoira jaitsita, zementuzko bigak eraiki dituzte teilatuaren alderik alde, egoera onean dauden egurrezko habeak hauen gainean ezarriko dituztelarik. Ondorioz, teilatuak metro erdi inguruko igoera izango du. Lan hau guztia burutzen, Donostiako 'Guires' eraikuntza enpresa ari da. Gabonak ingururako lanak amaiturik izatea espero dute.



*Korukoak urriaren 4an Errioxako egunpasan. Arg.: Xabier Olano.*

## Santa Zezilia

Herriko koruak, Kriseilu txistulari taldeak eta Tobera musika eskolakoek musikari eta kantarien eguna ospatuko dute: **Korukoek,** komentuan, azaroaren 23an, 12:00etako mezetan, Pedro Bilbaoren meza abestuko dute. Ondoren, bazkaria izango dute Imazenen. **Txistulariek,** meza ondoren, zortzikoa joaz kalejira egingo dute. Korukoekin bazkalduko dute. **Musika eskolakoek,** azaroaren 18an, 18:00etan kontzertua eskainiko dute herritarrentzat Aterpetxean.

## Legorreta

# Odol emale sarituak

Urriaren 25ean, odol emaileen dominak jaso zituzten hiru herritarrek Beasainen. Odol emaileen Goierriko ordezkaritzak urteroko festa ospatu zuen Beasainen eta bertan emaileentzat dominak eta diplomak banatu ziren.

Hogeita bost aldiz odola emateagatik, Legorretako Maite Oiarbidek, Miren Rezolak eta Inozentzio Artolak zilarrezko domina bana eta diploma bana jaso zuten.

Hau guztia arratsaldeko 7etan hasi zen Loinaz San Martin plazan, sarituei harrera egin zitzaielarik. Ordu erdi geroago, La Salle-San Jose ikastetxeko aretoan izan zen sari banaketa eta ekitaldiari Lierniko Mujika jatetxean eman zitzaion amaiera afari eder batekin.

### Ludoteka

Aste honetan hasi da Ugaro Herri Ikastetxeko gurasoek antolaturiko ludoteka zerbitzua. Astelehen, astearte eta ostegunetan izango da arratsaldeko 5etatik 6,30etara bitarte. Martxoaren 23ra bitartean izango da ludoteka, eta 20 guraso arituko dira lanean elkarren artean txandakatuz.

### Gaztetxoen zinemaren azaroko prgramazioa

**Azaroak 2:** 'Asterix y Obelix: Misión Cleoprata'.

**Azaroak 9:** 'El Caballero Negro'.

**Azaroak 18:** 'Harry Potter. 7 urtetik gora'.

**Azaroak 23:** 'La venganza del Conde de Pontecristo. 7 urtetik gora'.

### Ikastaroak

Aurten ere Legorretako udala urritik maiatzera bitarteko hainbat ikastaro prestatzeko ahaleginetan ari da, hala nola aerobic eta yoga ikastaroak. Hainbat arazo tarteko, oraingoz ez da ezer lortu. Baina emango zaizue aditzera zer edo zer martxan jarri orduko.



### Gazte festak eta kultur astea giro politean

Urriak 17 eta 18 egunetan ospatu ziren aurtengo Gazte Festak. Oso giro polita izan zen egun hauetan, eta antolatzaileak oso pozik daude alde horretatik. Hala ere, laguntza handiagoa eskatzen zaie herriko gazte guztiei, Gazte Festak antolatzeak lan handia eskatzen baitu.

Aste Kulturala aldiz, aurreko igandean amaitu zen euria nagusi izan zelarik. Aste osoan zehar hainbat ekitaldi ospatu ziren urtero bezala. Aurtengo berezitasunetako bat, igande eguerdian egin zen Legorretako Euskal Dantzaren Historiaren erakusketa izan zen. Honi buruzko informazio gehiago, abenduko alean izango duzue luze eta zabal.

*Zelai Amenabarro*

### Areto futbolean bi talde

Aurtengoan ere, bi talde arituko dira Legorretako herrian areto futbolean jokatzen. Dagoeneko hasi dira neurketak bi taldeentzat. Bilkoin Legorreta Autonomiko mailan ari da, Urko Etxeberria entrenatzaile dutela.

Bigarren taldea berriz, Bilkoin Eredu da, hauek 2. mailan ari dira, Markel Urretabizkaia entrenatzaile dutela.

Bilkoin Ereduren hasiera hobea izan da Bilkoin Legorretarena baino, oraingoz 4 neurketetatik 3 irabazi baitituzte. Hala eta guztiz ere, Bilkoin Legorreta ere ez dabil batere gaizki, maila onean jokatzen ari direla kontutan hartuta. Ea ba urte ona izaten duten bi taldeek.


VOLVO
LAND-ROVER
ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA
APGI
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95
AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA
zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA
9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA
e_txekin
• Laborala
• Fiskala
• Kontablea
• Juridikoa
• Aseguruak
• Inmueble ajentzia

## Ormaiztegi

# Mendi astea

San Andres jaien aurretik, mendi astearen txanda izaten da eta dagoeneko prest dago egitaraua. Azaroaren 17tik 23ra, mendizaletasunarekin lotutako punta-puntako gonbidatuak ekarriko dituzte herrira Ormaiztegiko Kirol Elkarteko Mendi Sailak eta Udalak.



**Azaroak 17, astelehena:**
Javier Fernandez: 'Unibertso berdea: basamortu tropikala'. 19:30ean, Kultur etxean.

**Azaroak 18, asteartea:**
Jose Ramon Agirre: 'Cho Oyu'. 19:30ean, Kultur Etxean.

**Azaroak 19, asteazkena:**
Josune Bereziartu: 'Bloketik Naranjora'. 19:30ean, Kultur Etxean.

**Azaroak 20, osteguna:**
Eneko Pou: 'Josemite (El Capitan)'. 19:30ean, Kultur Etxean.

**Azaroak 21, ostirala:**
Juanito Oiarzabal: 'Lurreko basamortuak'. 19:30ean, Kultur Etxean.

Jarraian, II.Argazki lehiaketako sari banaketa.

**Azaroak 23, igandea:**
Goizean, Ormaiztegi-Legazpi-Ormaiztegi mendi ibilaldia. Irteera, goizeko 8,30etan, plazatik. Helmuga, Itxune erretegi aurrean. Partaideei hamaiketakoa eskainiko zaie.

Arratsaldean, gaztaina jatea, plazan, 18:30ean.

### Argazki lehiaketa herrikoia

Ormaiztegiko Kirol Elkarteko Mendi Sailak eta Udalak, argazki lehiaketa herrikoia antolatu dute. Gaia, mendia izango da. Herritarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute eta bakoitzak argazki bana aurkezteko aukera izango du. Argazkiaren neurria eta formatoa, 13 x 18 izango da. 3 sari banatuko dira: 1.arentzat 130 euro, 2.arentzat 100 euro eta 3.arentzat 70 euro. Argazkiarekin batera, partehartzailearen datu pertsonalak bidali behar dira, udal liburutegira, azaroak 10 baino lehen.

*Aitziber Murua*

## Zaldibia

# Mondejurik onena, Orendaingoa

Urriaren 25ean, larunbatean, ospatu zen aurtengo Ardiki Egunean, hotza izan zen protagonista nagusia. Termometroa 0 gradutik gora egin ezinik, mondejua jateko giro paregabea.

Aurten gazta lehiaketarik izan ez bada ere, mondeju lehiaketa jokatu zen. 24 lagunek aurkeztu zituzten mondejuak lehiaketara. Gehienak zaldibiarrak, 18. Beste seiak, Leaburu, Lazkao eta Orendaingoak.

12 laguneko epaimahaiak eman zuen erabakiaren berri: Orendaingo Garmendia sendiko Kaietana Garmendiaren mondejua zela goxoena. Kanpokoa nagusi, beraz. 300 euro jaso zituen oreindaindarrak.


Arkupe
tapizegia
Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Maindireak - Storeak
Toailak - Gortinak eta osagaiak
J. M. Barandiaran Plaza
☎ 943 88 00 84 ORDIZIA

Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

## Mutiloa

# Kultur astea azaroan

Azaroaren 11tik 15era bitartean egingo da kultur astea eta aurten mendiari tarte berezia egingo zaio. Horretarako astearte, asteazken eta ostegunerako emanaldi hauek antolatu dira:



**Azaroak 11, asteartea,** 'Hegan egitea, Gizakiaren Ametsa' Cho Oyu , 8.201 metroko altuerako mendira egindako mendi igoera, Jose Ramon Agirreren eskutik.

**Azaroak 12, asteazkena,** 'Kirol eskaladan' oinarritutako irudi ikusgarriak, Josune Bereziartu eskalatzailearen eskutik.

**Azaroak 13, osteguna,** 'Changtok, 7.045, Xingiangeko ezezaguna', Koke Lasak txinatar gailurrera egindako igoera azalduko digu, irudi ikusgarrietan.

Emanaldi hauek guztiak Kultur etxean izango dira, arratsaldeko 7etan

## Sukaldeko olioaren bilketa

Sasieta Mankomunitateak sukaldeko olioa biltzeko egitasmoa martxan jarri du gure herrian, Goierriko beste batzuetan bezalaxe.

Bilketa hilean behin egingo da, hileko azken ostegunean. Azarokoa beraz, 27an izango da. Eguerdi aldera pasako da herri ingurutik furgoneta bat. Bukatzeko herriko plazan egongo da 13:10etik, 13:30era.

Sukaldeko olioa bakarrik bilduko da eta ez kotxeko olioa. Olioa gordetzen duten herritarrei, xaboi pastillatxo bat emango zaie opari bezala.

## Traste zaharrak biltzeko eguna

Urte amaiera bitartean traste zaharrak jasotzeko egunak honako hauek dira: azaroaren 12a eta abenduaren 10a. Gogoratu aldez aurretik deitu egin behar dela 943-161590 telefono zenbakira, trasteak zein tokitan dauden jakinarazteko.

### Musika kontzertua eta afaria

**Azaroak 15, larunbata,** Javier Arrillagaren kontzertua izango da herriko Ostatuan 19:00etan. Gitarra eta ahotsa elkarturik, abesti sorta zabala eskainiko digu, herrietako folklorean oinarritutakoak batzuk eta beste batzuk autore ospetsuen abestiak. **Ondoren:** herri mailako afaria izango da Ostatuan.

### Ardi jana ostatuan

Urteroko ohiturari eutsi nahian azaroaren 7an, gaueko 21:00etan ardi afaria egingo da Ostatuan.

*Iñaki Ugalde*

## Olaberria

# X. argazki rallyko irabazleak

Helduen mailan hauen izan ziren lehen hiru sarituak: 1. Urretxuko Carlos Mediavilla (150 euro jaso zituen). 2. Beasaingo Jose Luis Perez (90 euro). 3. Traparango Iñigo Figuero (60 euro). Herriko saria Olatz Berrondo Urretabizkaiarentzat izan zen (60 euro).

## Yoga ikastaroa

Azaroak 3, arratsaldeko 7Oetan bilera egitekoa zen gimnasioan aurtengo Yoga ikastaroaren aurkezpena egiteko eta aldi berean egunak eta ordutegiak zehazteko. Informazio gehiago udaletxean.

### V. haurren argazi rallya

'Aceralia Perfiles Olaberria, Arcelor Taldea' sariko sailkapena ondorengoa izan zen: 1. Bergarako Naiara Cantero. 2. Bergarako Ander Feo. 3. Urretxuko Oihana Mediavilla.


Zubi termiko hausturak leihoak
Bulego eta bainuetako manparak
Ateak, erakusleihoak eta balkoiak
GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA
943 880 162
Iñausti Ind. 14
OLABERRIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak
Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

## ZINEA

### GOIENIZ:

**Azaroak 6:** 'Historias minimas', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

**Azaroak 13:** 'Sweet sixteen', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

### LEGORRETA:

**'Quiero ser como Beckham',** azaroak 8, 20:30ean, Herri Zineman.

**'Bovolingo for Columbine',** azaroak 13, 20:30ean, Herri Zineman.

**'El señor de los anillos',** azaroak 20, 20:30ean, Herri Zineman.

## GOIENIZ

### 'Historias minimas'

*Carlos Sorin*

*(Argentina, 2002)*

Hiru pertsonaia eta hiru bidaia, Patagoniako lur amaigabeetan zehar. Horixe da film apal bezain eder honek kontatzen diguna. Don Justo, 80 urteko agurea, galdutako txakurraren bila abiatuko da auto stop eginez San Julian hirirantz, hanikusi omen dute eta. Roberto komertzio bidaiaria ere bide beretik doa urtebetetze tarta bat hartuta; tarta duela gutxi alargundutako bezero baten semearentzat da eta ustekabea eman nahi die, haien etxean azalduz, emakumeari bere sentimenduak adierazteko, bide batez.

## antzerkia

### BEASAIN:

*Azaroak* **15**, Dar dar taldearen 'Pinotxo' antzezlana, 17:00etan, Usurbe antzokian. Sarrera: 2,40 euro.

## musika

### ARAMA:

*Azaroak* **15**, Betagarri, Ken Zazpi eta DJ Bull, pilotalekuan, 23:00etan.

### ATAUN:

*Azaroak* **7**, Nekin taldea 23:30ean eta ondoren DJ festa, Oargi-Troskaetan.

### BEASAIN:

*Azaroak* **7**, Iñaki Salvador Trioaren kontzertua, Usurbe antzokian, 22:15ean. Sarrera: 9 euro.

*Azaroak* **12**, Golde Apple Quartet taldearen '17 años Golden' ikuskizuna, Usurbe antzokian, 21:00etan. Sarrera: 9 euro.

*Azaroak* **16**, Andoaingo Udal Musika Eskolako bandaren kontzertua, 13:00etan, Loinazko San Martin plazan.

### MUTILOA:

*Azaroak* **15**, Jabier Arrillagaren kontzertua, Ostatuan, 19:00etan.

### ORDIZIA:

*Azaroak* **8**, Barroko musika, eliz parrokian 20:00etan: 'Conjunto Barroco de San Sebastian'.

*Azaroak* **8**, Barroko musika, eliz parrokian 20:00etan: 'Ensemble Diatessaron'.

## bertsoak

### ATAUN:

*Azaroak* **7**, Xukan taldearen 'Iturrian zer dago?' dantza, musika eta bertso ikuskizuna, 22:30ean, Herri Antzokian.

*Azaroak* **11**, Zeberio eta Mañukorta, Kalustra Haundin, 13:00etan.

## bestelakoak

### BEASAIN:

*Azaroak* **11**, Ane Aseginolaza eta Arantxa Muñoxen ipuin kontaketa saioa, Kultur etxeko bibliotekan, 18:00etan.

## pailazoak

### ATAUN:

*Azaroak* **8**, Poxpolo, Mokolo eta konpania pailazoak, Herri Antzokian, 17:30ean.

### ZEGAMA:

*Azaroak* **16**, Takolo, Pirritx eta Porrotxen 'Katxiporreta' emanaldia, pilotalekuan, 17:00etan.

## dantzak

### BEASAIN:

*Azaroak* **8**, Aurtzaka dantza taldearen jaialdia, Loinazko San Martin plazan, 18.30ean.

*Azaroak* **9** 'Sones de Extremadura' taldearen dantza eta abesti emanaldia, Loinazko San Martin plazan, 12:30ean eta 18:00etan.

*Azaroak* **14** Kukai taldearen '1937, gogoaren bidezidorretatik' dantza ikuskizuna, Usurbe antzokian, 22:15ean. Sarrerak: 9 euro.

*Azaroak* **15**, Break Dance erakustaldia, Gernika pasealekuan, 19:00etan.




Olagi Sagardotegia
Eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
© 943 88 77 26 ALTZAGA

Aholkularitza
ASEPLAN
Abokautak - Ekonomilariak
Tel.: 943 887 129
Oriamendi Kalea 15, behea BEASAIN

✓ Enpresen asesoria eta gestioa
✓ Etxebizitza salerosketa
✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

etxekin

## ikusentzunezkoak

**MUTILOA:**

*Azaroak* **11**, Jose Ramon Agirreren 'Hegan egitea, Gizakiaren ametsa' eta 'Cho Oyu' ikusentzunekoak, 19:00etan, Kultur etxean.

*Azaroak* **12**, Josune Bereziarturen 'Kirol eskaladan', 19:00etan, Kultur etxean.

*Azaroak* **13**, Koke Lasaren, 'Changtok, 7.045, Xingiangeko ezezaguna', 19:00etan Kultur etxean.

**ORMAIZTEGI:**

*Azaroak* **17**, Javier Fernandezen 'Unibrtso berdea: basamortu tropikala'. 19:30ean, Kultur etxean.

*Azaroak* **18**, Jose Ramon Agirreren 'Cho Oyu'. 19:30ean, Kultur etxean.

*Azaroak* **19**, Josune Bereziarturen 'Bloketik Naranjora'. 19:30ean, Kultur etxean.

*Azaroak* **20**, Eneko Pouren 'Josemite (El Capitan)'. 19:30ean, Kultur etxean.

*Azaroak* **21**, Juanito Oiarzabalen 'Lurreko basamortuak'. 19:30ean, Kultur etxean.

**ZEGAMA:**

*Azaroak* **13**, Alberto Iñurrategiren 'Gure Himalaya' ikusentzunezkoa, Olarango Jubilatuen Elkartean, 19:00etan.

## hitzaldiak

**BEASAIN:**

*Azaroak* **10**, 'Gernu eta sexu arazoak 60 urtetik gora'. Erretiratuen etxean, 18:00-etan.

**IDIAZABAL:**

*Azaroak* **11**, 'Elikadura eta elikagaiak. Arriskurik gabeko elikadurarako jarraibideak' hitzaldia, 19:00etan, Pilar Enean.

**ZEGAMA:**

*Azaroak* **12**, Julian Bereziartu medikuaren hitzaldia: 'Neguaren eragina, bronkio, juntura eta bihotzeko gaixotasunetan'. Olarango Jubilatuen elkartean, 19:30ean.

## Barroko Aire XVIII. musika barrokoaren egunak Ordizian

Azaroaren 8tik 29ra bitartean Barroko Aire musika entzuteko aukera izango da Ordizian, eliz parrokian, iluntzeko 8etan. Egunez eguneko musikarien egitaraua duzue jarraian:

**Azaroak 8, larunbata:** 'Conjunto Barroco de San Sebastian'.

**Azaroak 15, larunbata:** 'Ensemble Diatessaron'.

**Azaroak 21, ostirala:** 'Jordi Savall'.

**Azaroak 29, larunbata:** Nerea Erauskin (sopranoa) eta Alejandro Zabala (pianoa).

## erakusketak

**ATAUN:**

*Azaroak 7tik 11ra,* Juanjo Dorronsororen pintura erakusketa Herri Antzokian.



**BEASAIN:**

*Azaroa 14ra arte,* Joxemari Telleriaren pintura erakusketa Aterpe tabernan.

**ORDIZIA:**

*Azaroaren 14tik 28ra,* Federico Alondo artistaren lanen erakusketa, Barrenan.

## mendi irteerak

**ORDIZIA:**

*Azaroak* **9**, Ordiziako Mendizaleak: Artia Gaboño-Arantzazu.

*Azaroak* **16**, Ordiziako Mendizaleak: Kifosa-Putxerri-Arbizu

## GOARDIAKO FARMAZIAK

***Astegunetan:*** Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

***Azaroak 8-9:*** Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 880628.

***Azaroak 15-16:*** Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

RENAULT
LAZKAO GARAJEA
Senpere Industrialdea
☎ 943 882 442
☎ 943 888 901
Faxa: 943 888 901
LAZKAO

IKASTEK AKADEMIA 2003-2004 IKASTURTEA
Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua.
ESKOLA LAGUNTZA
- Gai eta maila guztiak
- Lehen hezkuntza, DBH
- Batxilergoa
- Moduluak, Zikloak
- Unibertsitate-maila
IKASKETA ARAZOAK
- Errendimendua
- Atentzioa
- Ohiturak
- Metodoak
- Emozioen kontrola
GOIERRIKO UNIBERTSITATEA
- Marrazketa teknikoa
- Fisika
- Matematika
- Teknologia
Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120 www.ikastek.net

# Debaldeko iragarkiak

## Etxebizitzak

### salgai

➡ Baserria salgai Zegaman. Lursailarekin. 650477988.

➡ Pisua salgai Beasaingo Oriamendi kalean. 943884945.

➡ Ordiziako erdigunean pisu eguzkitsua salgai. 100 m². 3 logela, sukaldea, 2 bainugela eta trastalekua. 657739591.

➡ Buhardilla salgai Beasainen, Arana kalean. 943180291.

### errentan hartu

➡ Pisu txiki bat behar dut alokairuan Beasainen, Ordizian edo Tolosan. 943465724. Jabier.

➡ Beasainen, ahal dela Foru kalean edo Oriamendi kalean, pisu bila nabil. 627707143.

➡ Goierrin etxebizitza alokatu nahi dut. 647424788.

### errentan eman

➡ Urbasako mendi lerroan etxea alokatzen da, asteburu, zubi eta oporretarako. 948533981.

## Garajeak

### errentan hartu

➡ Seguran edo Idiazabalen garajea errentan hartuko nuke. 943801026. Arratsaldean edo gauean deitu.

### erosi

➡ Beasainen, San Inazio kalean edo inguruan, garajea erosiko nuke. 661294041. 19:00etatik aurrera deitu.

### errentan eman

➡ Lazkaon garaje itxia alokatzen da. 667866208.

➡ Garajea alokatzen da Beasaingo Igartza Oleta kaleko 8.enean. 943885698.

## Negozioak

➡ Martxan dagoen taberna eskualdatzen edo traspasatzen da Ordizian. 943161628.

## Lagun bila

➡ Egunero Ordiziatik Eskoriatzara joan-etorria egiten duen norbaiten bila nabil, bertan lan egiten baitut. 943086444.

➡ Segurako 5 lagun gara eta aerobic-erako jende bila gabitlza. Ordutegia: astelehenean eta ostiralean, 19:00etatik 20:30era. 652760635 - 615783362.

## Animaliak

### salgai

➡ 10 xaxardi, bere kupo eta guzti, salgai. 651703227.

➡ Bost artzain txakurkume salgai. 943180291.

➡ Setter ingelesak salgai. Bakunatuak eta tatuatuak. Radentis de España eta Florimond de Rada Land jatorrikoak. 943084374 - 637721992.

➡ Basurdetarako txakurkumea salgai. Sabueso eta Grigai kruzea. Guraso ehiztariak. 943682052. Gauetan deitu.

### opari

➡ Euskal artzain txakurra opari. 18 hilabetekoa. 943883307 - 943671829 (laneko orduetan deitu).

➡ Txakur gazte bat oparitzen da chip eta guzti. 696645880.

## Ibilgailuak

### salgai

➡ Opel Vectra salgai. Gasolina. SS-AV. Haize egokitua, ABS bikoitza, itxiera zentralizatua. Egoera onean. Prezio ekonomikoa. 653744914.

➡ 20 zaldiko BJR traktorea salgai. 943889647.

➡ Renault 19 salgai. Diesela. 5 ate. 650679119.

➡ Volvo 440, 1.7 salgai. Garajean edukia. Merke. 943653493 - 652774594.

➡ Honda NSR salgai. 125 R. 2001. urtekoa. Kilometro gutxirekin. Egoera onean. 650221487.

➡ Autokarabana salgai. 5 plazakoa. Prezio ekonomikoa. 661166591.

➡ Opel Vectra salgai. Diesela. SS-AV. Haize egokitua, airbag eta itxiera zentralizatua. 4.500 euro. 676049931.

➡ Golf 1.6 salgai. SS-AP. 1.500 eurotan. Transferitua. 655741801.

➡ Opel Kadet, 1.8i salgai. SS-AJ. 1990. urtekoa. Beti garajean egonda. 943889999.

## Bestelakoak

### erosi

➡ Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. 943187541.

### salgai

➡ Egongelako erdiko mahaia (egur naturala eta rustiko estilokoa), 3 plazako sofa (egur egiturakoa) eta 80 x 1,90 neurriko erabili gabeko koltxoia salgai. 20:30etik aurrera deitu, 629734261.

➡ Accesol markako berogailu elektrikoak salgai. Urtebetekoak. 616698236.

➡ Haurren logelako armairua eta apalak salgai. 616698236.

➡ Egongelako armairua salgai. 616698236.

➡ Egurrezko sehaska salgai. 5 urtera arteko



izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

GENERALI
GENERALI Aseguroak
IÑAKI ARIN BAZTARRIKA
Oriako Pasealekua,20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

haurrarentzat baliagarria. 670422051.

➡ Deville markako tximeneta salgai. Atearekin. 100 euro. 943085926.

➡ Euskaltel-euskadi karreterako bizikleta salgai, 56 neurrikoa. Egoera onean. 609966474

➡ Su egurra salgai. Iharra eta ondo txikitua. 943883410. Garraioa gure kontura.

➡ Egongelako altzari guztiak salgai: armarioa, mahai, 4 sofa eta silloia. Dena berri-berria. 250.000 pezetan. 646048047.

➡ Bi akumuladore salgai. Egoera onean. 606419407.

➡ Ford Fiesta XR2 autoaren piezak salgai. 943886506. Gauez deitu.

➡ Peugeot 306 autoaren 4 llanta originalak salgai, kubierta berriak eta 4 llanta ronald separadoreekin. Prezioa adosteko. 649150243.

➡ Su egurra salgai. Beheko surako edo ekonomikorako. 659071686.

➡ Egongelako armarioa salgai. 300.000 pezeta. Prezio negoziagarria. Erosten duenarentzat, 3 plazako sofa bat, plaza bateko bi butaka, egongelako mahai txikia eta kristalezko 3 lanpara opari. 943085147. 22:30etik aurrera deitu.

➡ Sutarako egurra salgai. 2 metrora moztua. Olaberrian. 676882842.

## Galdutako objektuak

➡ Urriaren 26an Larraitz eta Txindoki artean, Rosa 30-06-01 idatzita daraman urre zurizko eraztuna galdu zen. Iñaki. 610047505.

➡ Irailaren 28an 6 urteko umearen txamarra galdu genuen Zaldibian. Urdin argia eta beigea. 943881938.

## Lana

### eskaerak

➡ Klinika laguntzaileak behar dira Beasaingo 3. adineko zerbitzu batean lan egiteko. 655717148.

➡ Gaintzako jatetxe batean zerbitzaria behar da. 943886243.

➡ Astebukaeretarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada hobe. 943880044.

➡ Pertsona euskalduna behar da asteburuetan taberna batean lan egiteko. 943886577 - 943160205.

➡ Goierriko jatetxe batean zerbitzaria behar da asteburuetarako. 630402575.

➡ Zerbitzaria behar da sagardotegi baterako. 615700406.

➡ Beasainen, ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, pertsona gazte edo heldu bat beharko genuke. 943028855.

### eskaintzak

➡ Neska euskalduna eskaintzen da dendan, tabernan lan egin edo haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 635206858.

➡ Ingenieritza Informatikoko azken urteko ikasleak klase partikularrak emango lituzke. 943886226. Nagore.

➡ Beasaingo neska bat eskaintzen da haurrak zaindu eta behar baldin bada etxeko lanak egiteko. Haur Hezkuntzako ikaslea. Arduratsua. 653718090.

➡ Humanitate eta Enpresan lizentziaturiko mutil bat prest egongo litzateke 12-14 urte bitarteko gaztetxoei klase partikularrak emateko, laguntza behar duten edozein gairen inguruan. Taldeak 3 edo 4 pertsonakoak izango dira. 653744914.

➡ 20 urteko mutila prest dago edozein lanetarako. 637781384.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 679973209 - 943884626.

➡ Klase partikularrak ematen dira Idiazabalen. Lehen Hezkuntza, DBH, ikasketa ohiturak, eta abar. Talde txikiak eta mailaka. 658747901.

➡ 31 urteko neska prest dago arratsaldez, 3etatik 8etara, haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo dendaren batean lan egiteko. Esperientziaduna. 943800057. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Emakume bat eskaintzen da goizetan etxeko lanak egiteko. 658745046.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da Beasainen, haurrak zaintzeko. 943886981 - 669875234.

➡ Neska gazte bat eskaintzen da haurrak zaintzeko edota dendari bezala lan egiteko. Esperientziaduna eta arduratsua. 625703527.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570
- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

Pisuaren kontrolean
ZEURE OSASUNA
da garrantzitsuena
Ana Telleria Dra.
DIETETIKA
eta
NUTRIZIOA
www.auladesalud.com
943 08 55 60
Kontsultorio medikua Nafarroa etorb., 25 BEASAIN

SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


Mintzoa ulertzeko edo agertzeko arazorik baduzu;
edo hitz egiterakoan totelka egiten baduzu...
Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa
ahots Logopedia
Nagusia 2 1ºEsk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35



## Bigantxak zegaman 1970 inguruan

Zegamako jaietako sokamuturra ezaguna zen duela zenbait urte. Argazkia 1970 ingurukoa da eta bertan ikus liteke garai hartako autobusa, baita Mateuk (ezkerrekoa) eta Ibañezek (eskuinekoa) jartzen zituzten izozki postuak ere.

**Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.**

HAIZEA TABERNA
© 943 80 03 10
ZEGAMA

AITZKORPE TABERNA
Egun ona pasa dezazuela opa dizuegu!
S. Martin, 15 ☎ 943 80 11 62
ZEGAMA

BENITO
Harategia
Urdaitegia
© 943 80 02 05
S. Barbara, 8 ZEGAMA

ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
☎ 943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.
Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan
Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.
Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta Ormaiztegiko Iñaki Erosle.

MANOLO
Edaritegia
Pintxoetan aukera haundia!
© 943 80 12 36
ZEGAMA

ZEGAMAKO KONTSUMO KOOPERATIBA-k
egun ona pasa dezazuela opa dizue!
S. Martin, z/g ☎ 943 80 11 37 ZEGAMA

Askatasunaren etorbidea, 1-1.A

**DONOSTIA**

Tel.: **943 450 666**

# Arrigain, S.L.

## Berehala BEASAINen

SENPERE MERKATALGUNEA, 36. bulegoa

Tel.: **943 805 033** Faxa: **943 805 031** Poltsikokoa: **687 965 354**



**ORDIZIA:** 137m-ko pisua, dena kanpo aldera, igogailua, erdialdean.



**ORDIZIA:** 74 metroko pisua, 2 logela, egongela, bainugela, sukalde amerikarra, eguzkitsua prezio interesgarria.



**ORDIZIA:** Pisua 70 m, kanpoaldera, igogailua eta garaje konpartitua.



**ORDIZIA:** 85 m-ko pisua, erabat berritua, prezio interesgarria.



**ORDIZIA:** Erdigunean pisu ederra alokatzen da, bulegoa jartzeko egokia, despatxuak, kontsultak, kanpoaldera, igogailua.

**ORDIZIA:** Aukera ederra, altzariz jantzia, berritua, bizitzeko prest.



**ORDIZIA:** 87 m-ko pisu ederra, altzariz jantzia, bizitzeko prest, igogailua, prezio interesgarria.



**BEASAIN:** Pisua erdigunean, 105 m. egin berria, sukalde eta bainugela, igogailua eta trastelekua. Garajea izateko aukera.



**BEASAIN:** 70 m-ko pisua, 3 logela, sukaldea, bainugela, egongela, eguzkitsua, bistak, altzariz jantzia, ekonomikoa.

**BEASAIN:** Buhardilla apaina, erdigunean, altzariz jantzia, 2 logela, 16m-ko egongela, sukaldea eta bainugela.

**BEASAIN:** Pisua alokatzen da erdigunean. 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela eta trastelekua. Igogailuarekin.



**ZEGAMA:** 80 m-ko pisua erdigunean, dena kanpoaldera, eguzkitsua, prezio interesgarria.

## Apartamentuak Torreviejan




**AUKERA TXALETAK ALTZARIZ JANTZIAK**

Hilean 59.000 pta
354,60 euro

RESIDENCIAL LA CIÑUELICA

ITSASORA BISTA EDERRAK



**ETXEBIZITZAK HONDARTZA ONDOAN**

**6.800.000 pta-tik**
**40.868,82 eurotik**

% 100 finantziatua
Eskritura eta BEZ-a barne
Seriotasun profesionala
Eraikitzaileetik zuzenean

# ARAMAKO TABERNA

**Aramako plazan Tel.: 943 888 953**

*Jai zoriontsuak guztioi!*

Eguneroko menua 7,50 euro kafearekin

Asteburuko menuak 18 euro

Kaxuelitak

Pintxoak

Plater konbinatuak

Neguan babarrunjanak



*Toki lasaia eta giro euskalduna*

## Azaroaren 15ean kontzertua
## Frontoi estalian DOHAINIK

**Gaueko 11etatik**

**Goizaldera arte**







+




## Azaroak 7, 8, 9, 10 eta 11 Aramako jaiak
## Denok gonbidatuta zaudete!